

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

194

EBAZPENA, 2025eko abenduaren 23koa, HABEko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez ezar-tzen baita Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren (HEOC) zer maila egiaztatu ahal izango diren, 2025-2026 ikasturtean, euskaltegiko mailaren atalasearen gaineko eba-luazio-jardueretan oinarrituta; ebazpen honen bidez, baita ere, 2026ko azterketa-deialdia egiten da, HABEren Erregistroan inskribatuta dauden euskaltegietako eta euskararen autoikaskuntza-rako zentro homologatuetako ikasleentzat.

HABE erakundea sortzeko azaroaren 25eko 29/1983 Legeak eta 179/2003 zein 166/2019 Dekretuek xedatutakoa betez, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak herritar hel-duen euskararen komunikagaitasuna egiaztatzeari buruzko 2020ko irailaren 9ko Agindua eman zuen, HEOCean ezarritako euskarazko komunikagaitasun-mailen ziurtagiriak eskuratzeko pro-zedurak ezartzen dituen. Aginduak izapide-egoeran dauden aldaketak ditu gaur-gaurkoz, eta, beraz, Ebazpen berria argitaratuko da Aginduaren aldaketa horietan oinarrituta, behin aldaketok argitaratuta.

Agindu horrek xedatzen du HABEren Erregistroan dauden euskaltegietako eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ikasleek HEOCaren sei gaitasun-mailei dagozkien egiaztagiriak (A1, A2, B1, B2, C1, C2) eskuratu ahal izango dituztela; gainera, 2020ko irailaren 9ko Aginduak berak euskara-ikasle helduentzako dirulaguntza-deialdietarako irizpideak ere finkatzen ditu.

Era berean, euskara-ikasleok egiaztagiri horiek eskuratzeko bi era ezartzen ditu: ikasprozesuan zehar euskaltegian egikaritutako mailaren atalasearen gaineko ebaluaziogintzan egindako eba-luazio-jardueren bidezkoa, eta HABEren egiaztatze gintza bidezko deialdietakoa. Oinarri horien baitan ezinbestekoa da erabakitzea zein izango diren euskaltegietako eta euskararen autoikas-kuntzarako zentro homologatuetako euskara-ikasleek 2025-2026 ikasturtean HABEk kudeatutako egiaztatze gintzan izango dituzten jarraibideak zehaztea eta 2026rako azterketa-deialdiak egitea.

Halaber, 2026ko deialdiak entzumen-urritasun larria duten pertsona gorrei aukera emango die hizkuntza-trebetasunak partez egiaztatzeko, HEOCen definitutako A1, A2, B1 eta B2 mailetakoa komunikagaitasun-mailetako irakurmenean eta idazmenean, Kultura eta Hizkuntza Politikako sail-buruaren 2020ko irailaren 9ko Aginduaren 13. artikuluan araututakoaren babesean.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Euskaltegietako mailaren atalasearen gaineko ebaluazio-jardueren oinarriak onartzea, HABEren Erregistroan inskribatuta dauden euskaltegietako eta euskararen autoikaskun-tzarako zentro homologatuetako ikasleek 2025-2026 ikasturtean HEOCaren A1 eta A2 euskarazko komunikagaitasun-mailak egiaztatu ahal izan ditzaten, Ebazpen honen I. eta III. eranskinetan zehaztutako ezaugarrien eta baldintzen arabera.

Bigarrena.— Bi azterketalditarako deialdia egitea 2026an, HABEren Erregistroan inskribatuta dauden euskaltegietako eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ikasleek

HEOCaren B1, B2, C1 eta C2 gaitasun-mailak egiaztatu ahal izateko, Ebazpen honen II. eta III. eranskinetan jasotako oinarrien eta irizpideen arabera.

Hirugarrena.— Interesdunei jakinaraztea ezen, administrazio-bideari amaiera ematen ez dion Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa jar dakiokeela Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2025eko abenduaren 23a.

HABEko zuzendari nagusia,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.

I. ERANSKINA

A1 ETA A2 KOMUNIKAGAITASUN-MAILAK EUSKALTEGIKO MAILAREN ATALASEAREN GAINEKO EBALUAZIO-JARDUEREN BIDEZ EGIAZTATZEKO OINARRIAK

1. oinarria.– Xedea.

Oinarri hauen xedea da ezartzea behar diren xehetasunak 2025-2026 ikasturtean euskaltegietako eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ikasleek egiazta ditzaten A1 eta A2 komunikagaitasun-mailak, HEOCaren arabera euskaltegiko mailaren atalasearen gaineko ebaluazio-jarduerak gainditu ondoren.

2. oinarria.– Deialdirako oinarrizko esparrua.

HEOCa eta hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua (EEMB) izango dira ikasleen hizkuntza-gaitasuna egiaztatzeke oinarri eta marko, hurrenez hurren. Gainera, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Agindua euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegegintza arautu, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntza-deialdiatarako irizpideak finkatzen dituen Aginduan xedatutako eduki, irizpide eta jarraibideak hartuko dira oinarritzat.

Ondorioz, HEOCean jasotako ebaluazio-irizpideetara eta euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegegintza arautzen duen 2020ko irailaren 9ko Aginduan xedatutako eduki, irizpide eta jarraibideetara bilduko dira HEOCean ezarritako gaitasun-mailei dagozkien ziurtagiriak lortzera bideratutako euskaltegiko mailaren atalasearen gaineko ebaluazio-jarduerak.

3. oinarria.– Gaitasun-mailak egiaztatzeke baldintzak.

A1 eta A2 gaitasun-mailen ziurtagiriak lortzeko, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Aginduaren 46. artikuluari jarraikiz, lau garaitan egituratuko da 2026 urteko euskaltegiko mailaren atalasearen gaineko ebaluazio-jardueren bidezko egiaztatzegegintza, eta garai horietako bakoitzaren epemugetan, ikasleak ondoren zehazten diren baldintzak bete beharko ditu:

a) Oro har, ikasleak gutxienez 50 ikastordu hartuak eduki beharko ditu, eta udako ikastaroetan 30 ordu.

b) Asistentziari dagokionez, garai bakoitzean euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek matrikulazioaren jarraipenerako Q87 aplikazio informatikoan jasoko dituzte asistentzia-datuak. Ikasleak, gutxienez ikastaroaren % 75eko betetze-maila izan beharko du aurrez aurreko jardunean; autoikaskuntzan, berriz, mintza-saioetan izandako asistentzia-orduekin, gutxienez ikastaroaren ordu teoriko guztien % 7,5era iritsi beharko du.

c) Gaitasun-mailaren aurrerapenari dagokionez, ikasleak:

– A1 gaitasun-maila egiaztatzeke: ikastaroaren hasieran, gehienez, A1A0 abiapuntua izan beharko du, eta bukaeran, gutxienez, A1A1 (A1 maila) lorpen-maila.

– A2 gaitasun-maila egiaztatzeke: ikastaroaren hasieran, gehienez, A2A1 abiapuntua izan beharko du, eta bukaeran, gutxienez, A2A2 (A2 maila) lorpen-maila.

4. oinarria.– Ebaluazio-jardueren ezaugarriak.

1.– Euskaltegiko mailaren atalasearen gaineko ebaluazio-jardueren bidez egiaztatzeke, ikasturtean zehar garatuko diren lau garaietako bakoitzaren barruan, euskaltegiek eta euskararen

autoikaskuntzarako zentroek, beren euskaltegiaren curriculum-proiektuan jaso, eta HABEk onartutako irizpideen eta ebaluazio-sistemaren arabera, gutxienez ebaluazio-jarduera hauek egingo dituzte, helburu didaktikoez egin ditzaketen nahi beste jardueraz gainera: abiapuntuaren ebaluazioa, aurrerapenaren ebaluazioa (edo ebaluazioak, ikasprozesuaren iraupenak horretarako aukera ematen badu), ikastaro-amaierako ebaluazioa eta mailaren atalasearen gaineko ebaluazioa.

2.– Euskaltegiko ebaluaziogintzan ondorio didaktikoetarako egin litezkeen bestelako behaketak, ariketak eta abar eragotzi gabe, balio egiaztatzailea izango duten gutxieneko ebaluazio-jarduerak egokiak izango dira ikasleek lau trebetasunetan (idatzizkoaren ulermena eta adierazpena, eta ahozkoaren ulermena eta adierazpena) eskuratutako gaitasuna balioesteko eta egiaztatzeko, eta, entzumen-urritasun larria duten pertsona gorren kasuan egiaztagiri partziala eskuratzeko, bi trebetasunetan (idatzizkoaren ulermena eta adierazpena).

3.– Euskaltegiko mailaren atalasearen gaineko ebaluazio-jardueren bidez balio egiaztatzaileaz egingo diren ebaluazio-jarduerak HEOCean xedatzen dena aintzat hartuz, komunikazio-eraginkortasuna izango dute ebaluazio-irizpide nagusi. Horretarako, HEOCaren «Ebaluazio-irizpideak eta eskalak» atalean, maila bakoitzarentzat trebetasunez trebetasun zehaztutako irizpideen balioespen-eskalako tarteko deskripzioa (bigarrena) izango da, oro har, mailako helburuak bete izanaren adierazle, eta, beraz, mailaren atalasearen gutxieneko deskriptore.

4.– Aurreko ataletan esandakoa kontuan hartuta, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatze-gintza arautzen duen Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Aginduari 11. artikuluan, eta III. eranskinean jasotako egitura, eduki eta irizpideak jarraituz prestatu eta aplikatuko dira euskaltegiko mailaren atalasearen gaineko ebaluazio-jarduerak.

5.– Euskaltegiko ebaluazio-jarduera guztiak ikasleen irakasleak berak ebaluatuko ditu. Maila-amaierako ebaluazioaren idazmen- eta mintzamen-jarduerak bi irakaslek ebaluatuko dituzte, eta euskaltegiko edo euskararen autoikaskuntzarako zentroko zuzendariak ontzat emango ditu, eranskin honen 7. oinarrian zehaztutako egitekoak euskaltegiak egoki burutu dituela frogatu ondoren.

6.– A1 eta A2 mailen egiaztagiriak erdiesteko, ezinbestekoa izango da euskaltegiko irakasleek ebaluatutako mailaren atalasearen gaineko proba gainditzea.

7.– 2025-2026 ikasturtean, Ebazpen hau argitaratu baino lehenago egindako maila-amaierako ebaluazio-jarduerak balio egiaztatzailea izango dute, HABEko zuzendari nagusiaren 2025eko irailaren 18ko Ebazpenaren bidez emandako 2025/1 Jardunbidean xedatutakoa betetzen badute. Ebazpen hau argitaratu ondoren, euskaltegiko mailaren atalasearen gaineko ebaluazio-jarduerak Ebazpen honetan xedatutakora egokituko dira.

5. oinarria.– Ebaluaziogintzan izan beharreko jarraibideak.

HABEko zuzendari nagusiaren 2025eko irailaren 18ko Ebazpenaren 2.2, 3.2.2, 3.2.3, 3.2.4 eta 4.2 artikuluetan 2025-2026 ikasturterako ezarritako eduki eta jarraibideak ebazpen-deialdi honen oinarri dira euskaltegiko euskara-ikasleen ebaluaziogintza egikaritzeko.

6. oinarria.– Erreklamazioak, kalifikazioak berrikusteko eskaerak eta gora jotzeko errekursoak.

Ikasleak sarbidea izango du, nork bere pasahitza erabiliz, egin duen ikastaroaren iraupenari, asistentziari eta ezagutu duen ebaluaziogintzan lortutako mailari dagokion informazioa ikusteko, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Aginduan euskaltegiko mailaren atalasearen gaineko ebaluazio-jarduerak balio egiaztatzaileaz aplikatzeko zehazten diren urteko lau garaietako bakoitza amaitu eta bost laneguneko epean.

Ikasleek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte edo/eta erdietsitako kalifikazioa berrikusteko eskatu, eskaerak arrazoituz, ebaluazio-garai bakoitzean zehaztutako epeen barruan eta ezarritako jarraibideei lotuz. Erreklamazio- edota berrikuspen-eskariak nahikoa funts edo oinarri izan behar dute, hau da, ondo arrazoituta eta gertakarien berri zehatza jasoko dute edota trebetasunaz trebetasun motibazioak adieraziko dituzte.

Ikaslea ados ez badago euskaltegiko amaierako ebaluazio-txostenean jasotako informazioarekin, euskaltegiaren edo euskararen autoikaskuntzarako zentroaren aurrean kalifikazioa berrikusteko eskaera egin ahal izango du HABEk www.habe.euskadi.eus atari edo webgunean zehaztutako egutegian adierazitako hiru laneguneko epean; betiere, eskaera arrazoituz, objektibizatuz eta gertatutakoaren lekukotasuna aurkeztuz.

Euskaltegiak, jarraian, gehienez ere hurrengo bost laneguneko epean erantzun beharko dio ikaslearen eskaerari.

Euskaltegiak eskaeraren bat onartzen badu, gehienez ere, deialdiaren egutegi ofizialean zehazturiko bi lanegunen buruan jakinaraziko dio HABEri.

Halere, interesduna euskaltegiak edo euskararen autoikaskuntzarako zentroak emandako erantzunarekin bat ez badator, Azterketa Batzordean jarri ahal izango du kalifikazioa berrikusteko eskaera, dagokion garaiko agiriaren eragin-dataren ondorengo bost lanegunetan, HABEk egutegian zehaztu bezala.

Azterketa Batzordearen akordio edo erabakiaren (edo erantzunaren) aurka, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio HABEko zuzendari nagusiari.

Erreklamazioak eta kalifikazioak berrikusteko eskaerak Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Aginduaren 17. artikulua araberak izapidetuko dira.

Edonola ere, erreklamazioek, kalifikazioak berrikusteko eskaerek zein gora jotzeko errekurtoek ez dituzte etengo azterketaldi bakoitzerako jasotako prozeduren izapidetza eta egutegia.

7. oinarria.– Euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen egitekoak.

A1 eta A2 mailetako egiaztatze-prozesuan euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek ondoren zerrendatzen diren betebeharrak izango dituzte, ikas-irakas prozesuaren antolaketa, jarraipena eta kudeaketa didaktikoaren jarraibideei buruz:

a) Matrikulaturik dituzten ikasleak asistentzia-datuak eta lau trebetasunetan dituzten gaitasun-mailak adieraziko dizkiote HABEri, mailaz mailako kodeen bidez, HABEko zuzendari nagusiaren 2025eko irailaren 18ko Ebazpenean –2025-2026 ikasturterako jarraibideei buruz emandakoetan– adierazitakoaren ildotik, eta, betiere, matrikulazioaren jarraipenerako Q87 aplikazio informatikoan sartuz, www.habe.euskadi.eus atarian argitaratuko den egutegiaren arabera.

b) Euskaltegiko irakasleak oinarri hauetan jasotakoaren arabera ebaluazio-jarduerak egingo ditu:

– Abiapuntuaren ebaluazioa ikastaro bakoitzaren hasieran egingo da, eta emaitzak matrikulazioaren jarraipenerako Q87 aplikazio informatikora bilduko, kodeetan adierazita, ikaslearen ebaluazioaren emaitzak jasotzeko dagokion atalean.

– Ikastaro bat antolatzean, ikastaro horren helburu-maila zehaztearekin batera, ikastaro horren baitan mailaren atalasearen gaineko euskaltegiko ebaluazio-jardueren ebaluazio-data(k)

aurreikusiko d(ir)a, aste jakin bateko egunen baitan, ikastaroaren ezaugarriak, HEOCaren zein Euskaltegi Curriculum Proiektuaren (ECP) irizpideak kontuan hartuz.

– Mailaren atalasearen gaineko ebaluazio-jarduerak ikastalde guztiori aplikatuko zaizkio, eta emaitzak matrikulazioaren jarraipenerako Q87 aplikazio informatikora bilduko dira, kodeetan adierazita, ikasleen ebaluazioaren emaitzak jasotzeko dagokion atalean.

– Mailaren atalasearen gaineko probak maila bakoitzerako HABEk zehaztutako jarduera eredugarriaren arabera prestatutakoak izango dira, Ebazpen honen III. eranskinean maila bakoitzerako jasotako jardueren ebaluaziorako irizpideak betez.

– Euskaltegi bateko mailaren atalasearen gaineko ebaluazio-jardueren egutegia euskaltegiko «2025-2026 ikasturterako egitasmoak» txostenera bilduko da eta ikasturteko egutegia propio bidali HABEren Ebaluazio eta Egiaztatzerako Arlora; posta elektronikoz bidaliko da.

c) Euskaltegi edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetan antolatzen diren mailaren atalasearen gaineko ebaluazio-jardueren datak eta emaitzak matrikulazioaren jarraipenerako Q87 aplikazio informatikoan jasoko dira, burututako gainerako ebaluazio-jardueren emaitzekin batera.

d) Ikasleak A1 eta A2 mailak mailaren atalasearen gaineko ebaluazio-jardueren bidez egiaztatu ahal izateko, Q87 aplikazio informatikoan jasoko dira mailaren atalaseari dagozkion ebaluazioaren lau trebetasunen edo, entzumen-urritasun larria duten pertsona gorren kasuan, egiaztagiri partzialen bi trebetasunen ebaluazio-jardueren probak, HABEren jarraibideen baitan.

Honela jasoko dira, ikasteredu guztietan, lau trebetasunak (entzumena, irakurmena, idazmena eta mintzamena) balioesteko erabilitako eta ikasleek Q87 aplikazio informatikoan egindako ebaluazio-jarduerak:

– Enuntziatuak: ikasle bakoitzaren ebaluazio-jardueren enuntziatuak PDF fitxategi batean jasoko dira, hurrenkera honetan: a) idazmen-jarduera, b) mintzamen-jarduera, c) irakurmen-jarduera eta d) entzumen-jarduera. PDF fitxategi hori ikastaldeko karpetara igoko da.

Nolanahi ere, kasuren batean beste ebaluazio-jardueraren bat erabili bada, dagokion ikaslearen karpetan gordeko da enuntziatu berezi hori. Entzumen-jarduera neurtzeko erabilitako entzungaia ikastaldeko karpetara igoko da. Kasuren batean beste entzungairen bat erabili bada, dagokion ikaslearen karpetan gordeko da entzungai berezi hori.

Probaren enuntziatuak argi azalduko ditu ekintza komunikatiboaren ezaugarriak (testu-generoa eta komunikagaitasun-mailari dagokion egoera eta testuingurua), proba gainditzeko lortu beharreko puntuazioa, probaren iraupena, idatzi beharreko hitz-kopurua eta ebaluazio-irizpideak.

– Ekoizpenak: Idazmen-, irakurmen- eta entzumen-probak: PDF fitxategi bakarrean igoko dira hiru proba horiei dagozkien ekoizpenak. Ekoizpen guztietan, ikaslearen izen-abizenak agertu behar dira. Mintzamen-proba: ikaslearen izen-abizenak entzun behar dira grabazioaren hasieran. Grabazioan ikasle baten baino gehiagoren ekoizpenak jasotzen badira, grabazioaren hasieran entzun beharko dira ikasle horien guztien izen-abizenak.

– Enuntziatuak eta ekoizpenak konprimatu gabeko fitxategietan igo behar dira Q87 aplikazio informatikora.

e) Jardun biko ikastereduan, bakarkako jardun tutorizatuan egindakoa aurrez aurreko jardunarekin batera ebaluatuko da.

f) Horiez gainera, euskalategi edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetaiko zuzendariek A1 eta A2 mailetaiko ziurtagiriak eskuratzeko baldintza guztiak betetzen dituzten ikasleen mailaz mailaiko akta osatuko dute (gutxieneko ikastordua jaso, ikasleak ikastaroaren asistentziari dagozkion gutxienekoak bete, mailaren atalasearen gaineko ebaluazio-jardura gainditu eta euskalategiak ebaluazio-jardura horren lekukoak jaso). Akta horretan 7. d) puntuan zehaztutako datuei erreferentzia egingo zaie eta izenpetu egingo da, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Aginduaren 7. artikuluan eta eranskin honen 4.5 oinarrian aurreikusitakoaren arabera, eta HABEra bidaliko dituzte.

8. oinarria.– Ziurtagiriak.

1.– Lortutako gaitasun-mailai dagozkien ziurtagiriak jaulkitzeari begira, euskalategiak edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuak ebaluazio-garai bakoitzaren amaieran ziurtagiria eskuratu dezaketen ikasleek mailaren atalasearen gaineko ebaluazioan izandako emaitzari buruz euskalategiak egindako proposamenari oniritzia eman beharko dio HABEko zuzendari nagusiak, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Aginduan xedatutakoaren baitan, Ebazpen honetan ezartzen diren irizpide eta prozedurak bete direla egiaztatu ondoren.

2.– Mailaren atalasearen gaineko ebaluazio-jardueren bidez mailaren bat egiaztatu duenak dagokion ziurtagiria eskuratu ahal izango du www.habe.euskadi.eus atarian norberaren sarbidea eta «Agiriak» aukera baliatuz.

3.– Euskalategi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetaiko ikasleek egiaztatzen dituzten euskararen gaitasun-mailak HEOCeko gaitasun-mailen ziurtagirien HABEren Erregistroan inskribatuko dira. Erregistro horretan, pertsona bakoitzari buruzko identifikazio-datuekin batera, egiaztatutako euskarazko komunikagaitasun-maila eta egiaztapenaren eragin-data jasoko dira.

9. oinarria.– Informazioa, online tramitazioa eta argibide-eskaerak.

Egiaztatze-prozesu honetan aurreikusitako prozeduren ondoriozko argitaratze eta jakinarazpenak www.habe.euskadi.eus atariaren bidez egingo dira, erreklamazioei eta administrazio-errekurtsioen ebazpenei dagozkienak izan ezik.

Era berean, ikasleak www.habe.euskadi.eus ataria erabiliz gauzatuko ditu oinarri hauetan horrela xedatutako izapideak, eta egiaztatze-gintza@habe.eus posta-helbide elektronikoa baliatuko du Ebazpen honen oinarri eta prozedurei buruzko edozein kontsultatarako.

10. oinarria.– Datu pertsonalen babesa.

1.– Egiaztatze-deialdi honetan adierazitako datu pertsonalak eta egiaztatze-prozeduran zehar sortzen direnak «Euskalategien eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetaiko ikasleentzako deialdiak», «Ikasleen dirulaguntzak» eta «Egiaztapen-probetarako eskatutako ego-kitzapenak» izenekoak, edo horien orde z ezar daitezkeenak, dagokion Tratamendu Jardueren Erregistroan (TJE) sartuko dira, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europako Batzordearen eta Europako Parlamentuaren 2016/679 araudian xedatutakoaren arabera. Fitxategi horietan jasotako datuen erabilera ondoren zehazten dena izango da:

– Deialdi honetan aurreikusitako prozedurak kudeatzea.

– Euskarazko komunikagaitasun-maila egiaztatzeeko HABEren ziurtagirien erregistroan gordetzea, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Aginduaren 48. artikulua dionari jarraikiz.

– Emandako ziurtagiriak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateria helaraztea, urriaren 16ko 222/2012 Dekretuak agintzen duen moduan, deialdi honetan gaitasun-maila egiaztatzen dutenen datuak. Erregistro horretan dauden datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Herri Administrazioen Hizkuntza Normalkuntzaren zuzendaria da. Bertan jasotako datu pertsonalen gaineko eskubideak Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Zerbitzuaren zuzendaritzaren aurrean gauzatu behar dira.

– Euskaltegietako eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ikasleen kudeaketa: ikas-prozesua, euskara-mailaren egiaztapena eta dirulaguntzaren kudeaketa.

HABEko zuzendari nagusia izango da tratamenduaren administrazio-organo arduraduna.

Tratamendua beharrezkoa da lege ezarritako betebeharrak gauzatzeko (azaroaren 25eko 29/1983 Legea, HABE sortzekoa eta Euskaltegiak arautzekoa), eta interes publikoaren izenean egiten den xederen bat gauzatzeko, edo trataeraren arduradunari emandako botere publikoak egikaritzeko (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea).

Interesdunak bere datuak ikusteko, zuzentzeko zein ezabatzeko eskubidea izango du, baita haien tratamendua mugatzeko nahiz haren aurka egiteko ere, informazio gehigarrian adierazten den moduan.

Halaber, bere datuen tratamenduari buruzko informazio osagarria eskura dezake helbide honetan: <https://www.habe.euskadi.eus/datu-pertsonalen-babesa-haben/s23-edukiak/eu/>

Egiaztatze-prozesuaren ondoren, lau hizkuntza-trebetasunak neurtzeko egindako probak HABEk erabili ahal izango ditu prestakuntza-helburuetarako, ikerketa-lanetarako edota estatistikarako, betiere probek beren baitan dituzten datu pertsonalak behar bezala bereizi eta anonimatu ondoren, indarrean dagoen legeriak agintzen duen moduan. Horretarako, HABEk corpus bat osatuko du, eta corpus horren digitalizazioa eta erabilera ikergune espezializatuari edo antzeko beste eragile batzuei utzi ahal izango die, hizkuntzaren tratamendu automatikoari eta ikerketa aplikatu bide emateko. Corpusaren erabilera beti izango da ikerketa eta garapen teknologikoaren esparruan, eta ez du inola ere identifikazio pertsonalik ahalbidetuko.

2.– Euskaltegietako eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako irakasle eta zuzendari eta HABEko teknikarien betebeharra da, egiaztatze gintzari lotutako eragile orori buruz beren egitekoen jardunean ezagutzen dituzten datu pertsonalak eta bestelako informazioa isilpean gordetzea.

II. ERANSKINA

B1, B2, C1 ETA C2 KOMUNIKAGAITASUN-MAILAK EGIAZTATZEKO ETA
AZTERKETA-DEIALDIAREN OINARRIAK

1. oinarria.– Xedea.

Oinarri hauen xedea da, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Aginduak xedatutakoaren arabera, 2026ko bi azterketaldien zehaztapenak egitea, HABEren erregistroan inskribatutako euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ikasleek HABEren HEOCean zedarrituta dauden B1, B2, C1 eta C2 mailetan euskaraz komunikatzeko gaitasuna dutela egiazta dezaten.

2. oinarria.– Deialdirako oinarrizko esparrua.

HEOCa eta EEMB izango dira, hurrenez hurren, azterketariaren hizkuntza-gaitasuna egiaztatze oinarri eta barruti.

Horrela, HEOCean ezarritako gaitasun-mailei dagozkien ziurtagiriak lortzera bideratutako gaitasun-probak HEOCean zedarritutako ebaluazio-irizpideetara eta III. eranskineko edukietara bilduko dira.

3. oinarria.– Deialdian parte hartzeko baldintzak.

Azterketariak, deialdi honetako bi azterketaldietako gutxienez batean parte hartzeko aukera izan dezan, baldintza hauek bete beharko ditu:

a) HABEren Erregistroan inskribatuta dauden euskaltegi edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologaturen batean matrikulatuta egotea, 2025eko martxoaren 24tik aurrera, HEOCaren B1, B2, C1 edo C2 mailako ikastaro batean.

b) HABEk, 2026ko martxoaren 20an (lehen azterketaldirako) eta 2026ko irailaren 2an (bigarren azterketaldirako), euskaltegiak edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuak azterketaldi horretan ikasleari egindako mailaren atalasearen gaineko ebaluazioak aztertuko ditu. Ebaluazio horiek matrikulazioaren jarraipenerako Q87 aplikazioan sarturik egon behar dute adierazitako datetarako, lau hizkuntza-trebetasunetan oinarriturik eta eranskin honen 4. oinarrian zehaztutako kodeen bidez adierazirik. Ikasleak, ebaluazio diagnostikoaz gainera, gutxienez ebaluazio bat baldin badu, hurrengo bi azterketaldietan parte hartzeko aukera izango du: atalase-maila batera iritsi bada, maila horretan; atalase-maila batera iritsi ez bada, berriz, aitortu zaion mailaren azpiko atalase-mailarik altuenean.

c) C2 mailan matrikulatzeko, azterketariak C1 mailako euskara-agiria edo agiri baliokidea izan behar du, uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuak eta 65/2023 Dekretuak, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta EEMBko mailekin parekatzeko dekretua aldatzen dutenak diotenari jarraikiz, edota, maila hori egiaztatzetik salbuetsita izan behar du, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuari eta otsailaren 26ko 28/2019 Dekretuari jarraikiz. Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko diren dekretu horien babesean matrikulatutako azterketariak, dagokion unibertsitatearen ziurtagiria aurkeztu beharko du HABEn, salbuetsita gera dadin.

d) Matrikula egoki egin eta jarritako epean ordaintzea.

4. oinarria.— Euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen egitekoak.

a) Euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek matrikulaturik dituzten ikasleen datuak eta horien gaitasun-mailen gutxienekoak adieraziko dizkiote HABEri, matrikulazioaren jarraipenerako Q87 aplikazio informatikoaren bidez, azterketaldien egutegietan adierazitako egunetarako eta ezarritako prozedurei jarraikiz, mailaz mailako kodeetan:

– B1 mailan: B1B1 kodea.

– B2 mailan: B2B2 kodea.

– C1 mailan: C1C1 kodea.

– C2 mailan: C2C2 kodea.

b) B1, B2, C1 eta C2 mailetako azterketaldi hauetako entzumen- eta irakurmen-probak jarri, zuzendu eta kalifikatzeko orduan, euskaltegiak II. eranskin honen 9.3 eta 10.3 oinarrietan xedatutakoa betetze aldera, Ebazpen honen I. eranskinaren 7. oinarrian jasotakoa aintzat hartuko du entzumen- eta irakurmen-probei dagokienez.

5. oinarria.— Deialdiaren egutegia eta ezaugarriak.

1.— 2026an bi azterketaldi antolatuko ditu HABEk, HEOCaren B1, B2, C1 eta C2 mailetako euskarazko komunikagaitasun-maila egiaztatu ahal izateko.

2.— Bi azterketaldi horietan parte hartzeko izena emateko epeak hauek izango dira: a) 2026ko apirilaren 9tik 14ra bitartekoa, biak barne, lehen azterketaldian, eta b) 2026ko irailaren 7tik 13ra, biak barne, bigarren azterketaldian.

Oinarri hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean emango ditu argitara HABEk, www.habe.euskadi.eus atariaren bidez, 2026. urteko egiaztatze-prozesuetarako aurreikusitako egutegiak: matrikularen egoera ezagutzera emateko akordioa argitaratzeko data, probak egiteko egunak eta lekuak, eta proben emaitzak aditzera emateko datak.

3.— HABEk egutegian aurreikusitako egunak alda ditzake azterketaldion kudeaketan gerta litezkeen gorabeheren arabera, azterketaldirako matrikula-epeak izan ezik.

4.— Matrikula egin eta gero, HABEren atarian argitaratu den azterketa-egutegian ezarritako egunean azterketaria ez bada agertu azterketa-lekura, ez-aurrekiztatutako joko da eta azterketariak galdu egingo du azterketa egiteko aukera, salbuespenezko bi egoera hauengatik ez bada, jarraian adierazitako ondorioekin:

a) Egutegian finkatutako egunean azterketariari proba egitea galarazi dion egoera ustekabekoa eta ezinbestekoa den arrazoi batek eragin badu, edota lege-mailako arau batek babestutako egoera bada, azterketa-probaren eguna aldatu ahal izango da, egutegian zehaztutako ezohiko egun batera, betiere ondorengo baldintzak betez gero: azterketariak proba-egunaren biharamunetik hasita hiru egun baliodun izango ditu azterketa-egunean aurkeztu ez izanaren justifikazio-agiria HABEn aurkezteko posta elektronikoz, eta proba-egunaren biharamunetik kontatzen hasita, bost egun baliodun, agiriaren konpultsa HABEren egoitzetako batean aurkezteko. Agiri horretan azaldutako karia dagokion txosten edo dokumentu zalantzagabeez frogatu beharko du.

Aukera hori behin bakarrik baliatu ahal izango da.

b) Egutegian finkatutako egunean azterketariari proba egitea galarazi dion egoera lege-mailako arau batek babestutako arrazoi batek eragin badu eta azterketariak proba egiteko ezohiko egunaz baliatzerik izan ez badu, egindako matrikula eta azterketaldian jadanik lortutako emaitzak hurrengo azterketaldirako gordeko zaizkio.

Hiru laneguneko epea igaro ondoren aurkeztutako eskabideen izenpetzaile diren azterketariak ez-aurrekutzat emango dira azterketaldi horretan.

5.— Idatzizko probetarako, azterketariak lurraldea aldatzeko eskabidea egin ahal izango du HABEk hitzorduak esleitutakoan. Ahozko probetarako, berriz, HABEk esleitutako hitzordua aldatzeko eskaria egin ahal izango du azterketariak, betiere idatzizko proba egin duen lurralde beraren baitako txanden artean (azterketariaren maila eta deialdirako). Aldaketa-eskaera horiek HABEk esku artean dituen epe, jarraibide eta baliabideen baitan emango ditu ontzat edo ez, betiere deialdiaren egutegian ezarritako epeetan eta www.habe.euskadi.eus atarian finkatutako prozedurei jarraikiz.

6. oinarria.— Matrikula egiteko izen-ematea, prezioa eta ordainketa.

1.— B1, B2, C1 eta C2 gaitasun-mailak egiaztatzeko gaitasun-proba egiteko izen-ematea www.habe.euskadi.eus atarian egingo da, matrikula-orria betez, horretarako ezarritako epearen barruan. C2 mailaren kasuan, azterketariak norbera aditua den espezialitate akademiko edo teknikoaren zein den zehaztuko du matrikula-orrian.

2.— Matrikularen ordainketa ere epe horretan egin beharko da, Interneten bidez edo, bestela, horretarako bidea ematen duten finantza-erakundeetan (Kutxabank, Sabadell, Laboral Kutxa, Abanca, BBVA, Banco Santander, CaixaBank, Banco Popular, Caja Rural de Navarra), izena ematean eskuratzen den matrikula-inprimakia erabiliz.

3.— Matrikulatze-prozesua behar bezala osatu dela ulertuko da izen-ematea eta matrikula-ordainketa emandako epearen barruan eginda daudenean. Beraz, izen-ematea edo ordainketa matrikula-epearen barruan egin ez izanak egiaztatze-prozesutik kanpo geratzea ekarriko du.

4.— Behin matrikula-eskubideak ordainduz gero, ez da dirurik itzuliko, salbuespen-kasu hauek izan ezik: a) maila bereko matrikula birritan ordaindu bada; b) okerreko maila edo deialdi baterako egin bada matrikula, baina betiere itzulketarako eskaria matrikula-epearen barruan egin baldin bada; c) aurreko deialdiaren baitan HABEko zuzendari nagusiak azterketariak jarritako gora jotzeko errekurtsioa onartu badu eta, ondorioz, egindako matrikula baliogabetu badu; d) matrikula-egile den azterketariaren heriotza gertatu bada proba-egunaren aurretik.

5.— Matrikularen prezioari dagokionez, HABEk ematen dituen zerbitzuen prezio publiko finkatuak aplikatuko dira; alegia, unean-unean indarrean dagoen araudiari jarraituz matrikulazio-aldi bakoitzean aplikagarriak diren prezioak. Aldi bakoitzeko prezio horiek www.habe.euskadi.eus atariaren bidez emango ditu ezagutzera HABEk.

Azterketaldi batean trebetasun-proba bat salbuetsita izan eta egin behar ez duenak ere (9.3 oinarriaren arabera) ezarritako diru-kopurua ordaindu beharko du matrikula gisa.

6.— Azterketaria euskararen komunikagaitasun-maila bakar batean matrikulatu ahal izango da euskaltegi-tako ikasleen deialdiko egiaztatze-azterketaldi bakoitzean.

7.— Euskaltegi-tako ikasleen egiaztatze-deialdian matrikulatzen den azterketariak ezin izango du beste matrikularik egin azterketaldi bereko HABEren beste deialdi batean.

8.– Matrikula egitearekin batera, oinarri hauetan bildutako irizpide eta prozedura guztiak beraz onartzeko eta betetzeko konpromisoa hartzen du azterketariak.

7. oinarria.– Matrikularen egoera.

Matrikula egiteko epea amaitu ondoren, matrikularen egoera ezagutzera emateko erabakia argitaratuko da www.habe.euskadi.eus atarian. Azterketari bakoitzak, bere pasahitz pertsonala erabiliz, sarbidea izango du informazio horretara, eta ikusgai izango du norberari dagokion matrikula zertan den (onartu den edo ez den onartu).

8. oinarria.– Berariazko egoerak.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Aginduaren 28. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, egiaztatze-probetan parte hartu nahi duten eta egokitzen jakinak behar dituzten azterketarien kasuan, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu HABEk, desgaitasunen bat duten azterketari horien aukera-berdintasuna bermatzeko; betiere, probaren edukia indargabetzen ez bada edo balioetsi beharreko gaitasun-maila murrizten edo kaltetzen ez bada.

Gaitasun-proba berariazko behar horietara egokitu ahal izateko, azterketariak, azterketaldi-rako matrikula egiteko garaian, HABEren lurralde-arduradunari egin beharko dio eskaera, eta, duen desgaitasunaren eremuan eskumena duen erakunde publikoak emandako agiri ofizialez zurtzeaz gain, eskatzen duen egokitzeaz azalduko du (aulki, mahai edo ordenagailu berezia, entzungailuak, braille-sistema eta abar), kasuan kasuko antolaketa-moduaren arabera. Halaber, aurkeztutako agiriaren konpultsa HABEren egoitzetako batean egin beharko du, matrikula-aldia bukatu eta 7 egun naturaleko epearen aurretik.

HABEk, jasotako eskariak kontuan izanda, baliabide materialak nahiz proben iraupenak egokitu egingo dizkie behar bereziak dituzten azterketariei, betiere Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Aginduari edota gaitasun-probok burutuko diren egunean indarrean egongo den arautegiari jarraikiz.

Entzumen- eta mintzamen-gaitasuna nabarmen eta etengabe mugaturik duten pertsonak, % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna aitortuta baldin badute arrazoi horiengatik, B1 eta B2 mailetako irakurmeneko eta idazmeneko hizkuntza-trebetasunak partzialki egiaztatze-ko aukera izango dute, matrikula egiteko unean matrikularen prezioa % 50 murriztuta. Zatikako gaitasun-proba gainditzeko, beharrezkoa izango da trebetasun horiek gainditzeko ezarrita dauden gutxienezko kalifikazioak erdiestea.

9. oinarria.– Gaitasun-probetako atalen ezaugarriak, antolaketa, ebaluazio-irizpideak eta kalifikazioak.

1.– Gaitasun-mailak ebaluatzeko prestatutako probek ikaslearen euskarazko komunikagaitasuna balioetsiko dute: azterketariak euskaraz entzundakoa ulertzeko eta irakurritakoa bereganatzeko duen gaitasuna, batetik, eta euskaraz aditzera eman nahi dituen testuak ahoz zein idatziz egiteko duena, bestetik.

2.– Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzuko Ebaluazio eta Egiaztatzerako Arloak prestatuko ditu idazmena eta mintzamina neurtzeko probak, III. eranskinean zehaztutakoa oinarri hartuz.

3.– Proben aplikazioari dagokionez, HABEren Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzuak aplikatuko ditu idazmena eta mintzamina neurtzeko probak, lurraldeka eta lurralde bakoitzean eremu bakoitzean. Entzumen- eta irakurmen-probak euskaltegiko irakasleak jarri, zuzendu eta kalifikatuko ditu.

Ondoren, euskaltegiak, ikastaroari dagozkion jarraibideak itxi baino lehen, gorde egingo ditu sistematikoki, HABEko zuzendari nagusiaren 2025/1 jarraibidean adierazitakoaren ildotik.

Euskaltegietakiko ikasleen deialdiaren baitan, 2024tik aurrerako azterketaldi batean (2024koak barne) irakurmen-proba eta entzumen-proba gainditu dituen B1, B2, C1 eta C2 mailetakoko ikasleari trebetasun-proba horietako emaitzak gordeko zaizkio 2026ko deialdiko bi azterketaldietan, eta, horrenbestez, idazmen-proba eta mintzamen-proba bakarrik egin beharko ditu, betiere, ebazpen honen arabera, matrikulatzeko eskubidea baldin badu azterketaldi horretan. Halaber, irakurmen- eta entzumen-probak ez ezik, idazmeneko proba ere gainditu badu, soilik mintzamen-proba egin beharko du dagokion azterketaldian.

Euskaltegietakiko ikasleen deialdian 2024tik aurrera gordetako probetariko batzuk gainerako deialdietarako (deialdi irekirako eta HOBE deialdirako) ere gordeko dira, 2026ko bi azterketaldietan. Azpiko taulan adierazten dira, azterketariak deialdi bakoitzean gordeta dituen probak kontuan izanda, euskaltegietakiko ikasleen deialdian egin beharko dituen probak, kode hauen arabera:

- IRK: Irakurmen-proba.
- IDZ: Idazmen-proba.
- ENT: Entzumen-proba.
- MIN: Mintzamen-proba.

Deialdi bakoitzean gordetako probak	Euskaltegietakiko ikasleen deialdian egin beharreko probak	
	Idatzizko atala	Ahozko atala
Irakurmena eta entzumena gordeta (euskaltegietakiko ikasleen deialdian)	IDZ	MIN
Irakurmena eta idazmena gaindituta (deialdi irekian)	-	ENT ¹ , MIN
Irakurmena, entzumena eta idazmena gaindituta (euskaltegietakiko ikasleen deialdian edo HOBE deialdian)	-	MIN

¹ENT1: Entzumen-proba euskaltegian egingo da, irakurmen- eta entzumen-proben ohiko epeetan.

Azterketariari aukera desberdinak sortuko balitzaizkio, azterketariarentzako onuragarriena hautatuko du HABEko automatikoki.

4.– Maila bateko probak gainditzeko, 100 puntutik gutxienez 50 lortu beharko ditu azterketariak, III. eranskineko puntuazio-sistemari jarraikiz. HEOCaren «Ebaluazio-irizpideak eta eskalak» atalean, mailaz maila eta trebetasunez trebetasun zehazten diren ebaluazio-irizpideen balioespen-eskalako bigarren deskriptoreak adierazten du azterketariak maila gainditzeko azaldu beharreko hizkuntza-gaitasuna. Maila bat gainditzeko, azterketariak lau trebetasunetako probak gainditu beharko ditu, aipatutako eranskinean jarritako irizpideak betez.

Nolanahi ere, B1, B2 eta C1 mailetakoko idazmen-probako emaitzan 15 puntura iritsi ez, baina gutxienez 14 lortzen dituen azterketariak mintzamen-proban ateratako puntuekin konpentsatu ahal izango du puntu-gabezia hori, baldin eta mintzamen-proban 17 puntu lortu baditu. Edonola ere, ezinbesteko baldintza izango da gutxienez 14 puntu ateratzea idazmen-proban, mintzamen-proba aurkeztu ahal izateko.

C2 mailari dagokionez, idazmen-probaren bi ariketak gainditu behar dira (bitartekaritza-ariketan, gutxienez, 8tik 4 puntu; bigarren ariketan, berriz, 22tik 11 puntu; guztira, 15 puntu). Nolanahi ere, lehen ariketan 4 puntura iritsi ez baina 3 puntu lortzen dituenak idazmen-probaren bigarren ariketan ateratako puntuekin konpentsatu ahal izango du puntu-gabezia hori, baldin eta bigarren ariketan gutxienez 12 puntu lortzen baditu.

5.– Egiaztatze-jarduerak Interneteko konexiorik gabe egingo dira, eta gailu elektronikoek eskain ditzaketen edukietarako sarbiderik izan gabe (telefonoak, ordenagailuak, argazki-kamerak, soinu-grabagailuak, haririk gabeko entzungailuak, irakurgailuz hornituriko erlojuak, ikus-entzunezko edukietara sarbidea eskaintzen duten betaurrekoek...).

6.– Idazmen-probetan, irakurgarria izango da idazkera eta ulergarria kaligrafia. Mintzamenekoetan, berriz, argi ahoskatuko da eta zuzen ebakiko dira hitzak.

7.– Idazmen- zein mintzamen-proba egitean, azterketariak ematen zaizkion jarraibideak zuzen eta egoki bete behar ditu.

10. oinarria.– Gaitasun-proben zuzenketa-prozesua.

1.– Hizkuntza-arauak eta euskalkiak.

Lau hizkuntza-trebetasunak neurtzeko azterketariak egindako probek Euskaltzaindiak indarrean dituen arauak beteko dituzte.

Mintzamina balioesteko probetan, azterketariak bere euskalkia erabiltzeko gaitasuna eta jarratasuna erakuts dezake, betiere egitekoaren testuinguruari hala badagokio. Horrelakoetan, aztertzaileek azterketarion hizkuntza-erabilera horiek aintzat hartu eta balioetsiko dituzte azken emaitza jartzean.

2.– Anonimotasuna.

Gaitasun-probak norenak diren jakin gabe zuzenduko dituzte aztertzaileek, tutoreek zein iker-tzaileek, zuzenketa anonimoa bermatzeko. Aztertzaileak ezin izango du berak azkeneko bi urteetan izandako ikasleen gaitasun-probarik zuzendu. Horrelakorik gertatuz gero, aztertzaileak berak laga beharko du zeregin hori azterketaldiaren antolaketa-garaian.

Mintzamen-probetan, irakasle izan ez dituen aztertzaileekin arituko da azterketaria. Irakaslea epaimahaiari aztertzaile gisa egotea eskatzen duten ezohiko inguruabarrak gertatzen badira, azterketariari jakinaraziko zaio beste aztertzaile batek kalifikatuko duela proba.

3.– Irakurmen-probaren eta entzumen-probaren zuzenketa.

Euskaltegi bakoitzak edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatu bakoitzak dago-kion epaimahaiari bidaliko dizkio azterketariak euskaltegian edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuan bi trebetasun horietan taldeko irakasleak jarritako kalifikazioak, matriku-lazioaren jarraipenerako Q87 aplikazio informatikoaren bidez, ikasleen emaitzen akta bete eta euskaltegiko zuzendariak sinatuta, deialdiaren egutegian horretarako jarritako epearen barruan. HABEren egiaztatze-probako komunikagaitasun-mailakoak izan beharko dute ikaslearen kalifika-zioek, eta gaindituta izan beharko ditu, maila horretarako.

4.– Idazmen-probaren zuzenketa.

a) Idazmen-proba, gutxienez, bina aztertzailek zuzenduko dute, eta irizpen arrazoitua emango dute kalifikazio-fitxan.

b) Idazmen-proban maila bakoitzerako eskatutako hitz-kopuruaren gutxienekoari dagokionez, aztertzaileak irizpideok beteko ditu eta ondoriozko kalifikazioa emango:

- Azterketariak eskatzen den gutxieneko hitz-kopurua idatzi badu eta mailari dagozkion irizpideak betetzen baditu, 15-30 puntu bitartean emango zaizkio.
- Eskatutako hitz-kopurura iristen ez diren idazlanak balioesterakoan (kontuan har bedi C2 mailan bigarren jardueran bakarrik eskatuko dela gutxieneko hitz-kopurua idaztea), % 20 baino gutxiagogatik iristen ez den idazlanari kenketa egingo zaio puntuazio orokorrean, ondoren zehazten denaren arabera:

	B1	B2	C1	C2 (bigarren jarduera)
Hitz-kopurua	140	200	300	350
-1 puntu	127-139	181-199	271-299	326-349
-2 puntu	120-126	172-180	258-270	303-325
-3 puntu	113-119	161-171	241-257	280-302

Halaber, % 20 hitz baino gehiago falta zaizkion idazmen-proba honela kalifikatuko da:

	B1	B2	C1	C2
Ez-gai: 5 puntu	≤ 112	≤ 160	≤ 240	≤ 280

c) Idazmen-proba berariazko aplikazio informatiko baten bidez banatuko zaie aztertzaile, iker-tzaile zein tutoreei, euskarri digitalean.

d) Idazmen-proba zuzentzeko prozedura:

Zuzenketa anonimoa egingo da, jarduera guztietan itsu bikoitzeko sistemaz proba bakoitzaren bi zuzenketa eginez, bi ebaluatzailek bakoitzak bere aldetik eginga. Ebaluatzaileek ausazko banaketa baten bidez jasoko dituzten probak balioetsiko dituzte, Ebazpen honen III. eranskinean HABEko zuzendari nagusiak ezarritako idazmen-probaren balioespen-irizpide berezien arabera, eta, era horretan, proba horren ebaluazioa behar bezain objektiboa izango dela bermatuko da.

Kalifikazio-prozesua jarraibide hauen arabera bideratuko da:

- Baldin eta bi ebaluatzaileek ariketa «Gai» kalifikatzen badute, idazmen-proba «Gai» gisa balioetsiko da.
- Baldin eta bi ebaluatzaileek ariketa «Ez-gai» kalifikatzen badute, idazmen-proba «Ez-gai» gisa balioetsiko da.
- Baldin eta ebaluatzaileetako batek proba «Gai» kalifikatzen badu eta besteak «Ez-gai» gisa, probak tutore edo ikertzaile baten irizpena jasoko du.

5.– Mintzamen-probaren zuzenketa.

a) Mintzamen-proba bina aztertzailek bideratu eta zuzenduko dute, eta kalifikazio-fitxa baka-rean emango dute irizpen arrazoitua.

b) Gutxienekoak bete diren ala ez erabakitzean bi aztertzaileak bat ez badatoz, bigarren zuzenketa egingo dute tutore edo ikertzaileek. Tutore edo ikertzaile horiek ofizioz ebaluatuko dute proba, eta kasuan kasuko epaimahaiari bidaliko diote beren irizpen arrazoitua.

c) Mintzamen-proba guztiak grabatu egingo dira, zuzenketa-prozesuaren euskarri gisa eta aztertzaileen ikerketa- eta prestakuntza-lana sendotzeko, betiere probek bere baitan dituzten datu pertsonalak behar bezala bereizi eta anonimatu ondoren, indarrean dagoen legeriak agintzen duen moduan.

6.– Bateratze-saioak.

HEOCean ageri denari jarraikiz, ebaluatzaileen gaikuntza-maila zabaltzeko eta sendotzeko, irizpide objektiboak eta berdinak erabiltzeko eta ebaluazio-prozesuari zehaztasuna eta bermea emateko, ebaluazio-irizpideen inguruko bateratze-saioak antolatuko ditu HABEk. Aztertzaileek bateratze-saioak egin beharko dituzte HABEren 2026ko egiaztatze-deialdietan jarduteko.

B1, B2, C1 eta C2 mailetako bateratze-saioak mailaz maila antolatuko dira eta aurrez aurre edo online teknologiak baliatuz egingo dira.

11. oinarria.– Egiaztatze-prozesuaren emaitzak onartzea.

Mailaz mailako Epaimahaiek aztertzaile, ikertzaile eta tutoreek egindako balorazioak aztertuko dituzte, probei dagozkien emaitzak onartuko dituzte hala balegokio, eta Azterketa Batzordeari igo-rriko dizkiote.

Jarraian, Azterketa Batzordeak emaitza guztiak HABEko zuzendari nagusiari aurkeztuko dizkio, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Aginduaren 36. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

12. oinarria.– Emaitzak argitaratzea.

Azterketa Batzordeak emaitzak ezagutzera emateko erabakia argitaratuko du HABEren www.habe.euskadi.eus atarian, egutegian zehaztutako datetan. Gainera, emaitzak mailaz maila eta trebetasunez trebetasun erakutsiko ditu. Azterketari bakoitzak informazio horretara sarbidea izango du HABEren atarian bere pasahitz pertsonala erabiliz, eta ikusgai izango du norberari dagokion emaitza.

13. oinarria.– Ziurtagiriak.

Gaitasun-probak gaindituz mailaren bat egiaztatu duenak dagokion ziurtagiria eskuratu ahal izango du www.habe.euskadi.eus atarian norberaren sarbidea eta «Agiriak» aukera baliatuz.

14. oinarria.– Erreklamazioak, kalifikazioak berrikusteko eskaerak eta gora jotzeko errekursoak.

Erreklamazioak eta kalifikazioak berrikusteko eskaerak Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Aginduaren 17. artikuluan arabera izapidetuko dira, eta, izapidetu daitezen, azterketariak jarraian azaltzen diren datu zein agiriak aurkeztu beharko ditu, nahitaez:

– Erreklamatzailerik edo eskatzailearen izen-deiturak eta jakinarazpenetarako posta-helbidea eta helbide elektroniko bat.

– Nortasun-agiriaren zenbakia.

– Egiten duen erreklamazioa edo kalifikazioa berrikusteko eskaera.

– Gertaera edo errakuntza hori izan dela erakusten duten agiriak edo frogak.

– Lurraldea, lekua, data eta egiaztatze-maila.

– Eskaera-egilearen sinadura.

Erreklamazioak eta kalifikazioak berrikusteko eskaerak hiru egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, onartutako pertsonen buruzko erabakia hartu, azterketa-proba egin edo azterketa-eguna izan edo proben emaitzak HABEren atarian (www.habe.euskadi.eus) ezagutzera eman eta hurrengo egunetik aurrera.

Erreklamazioen eta kalifikazioak berrikusteko eskaeren erantzunei buruzko erabakia www.habe.euskadi.eus atarian argitaratuko da.

Erreklamazioek, kalifikazioak berrikusteko eskaerek eta gora jotzeko errekursoek ez dituzte etengo, inola ere, deialdian jasotako prozeduren izapidetza eta egutegia.

1.– Erreklamazioak.

a) Deialdi honen egiaztatze-prozesuko interesdunak uste badu B1, B2, C1 eta C2 mailetan egin dituen irakurmen- eta entzumen-proben antolaketaren prozeduretan nolabaiteko errakuntzaren bat gertatu dela, euskaltegi edo euskararen autoikaskuntzarako zentroaren aurrean, erreklamazioa aurkezteko eskubidea izango du.

b) Deialdi honen egiaztatze-prozesuko interesdunak idatzizko erreklamazioa jar dezake HABEren aurrean, deialdiaren Ebazpenean xedatutako proben antolaketa-prozeduren baitan errakuntzaren bat izan baldin bada.

Gainera, matrikularen egoera behar bezalakoa ez delako ere jarri ahal izango du azterketari batek erreklamazio bat.

Erreklamazioa aurkeztu ahal izango da, bai paperean –Zuzenean arretagunean, postaz edota HABEren egoitzetan–, bai telematikoki (Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa identifikazio sistema egoki bidez, hau da, BakQ edo NAN elektronikoz). Ahal bada, bide telematikoa lehenetsiko da.

2.– Kalifikazioak berrikusteko eskaerak.

a) Irakurmen- nahiz entzumen-probetan lortutako kalifikazioak berrikusteko eskaerak euskaltegi bakoitzaren aurrean aurkeztu beharko dira.

Horretarako, probak burutu eta gehienez ere hurrengo bost lanegunetan euskaltegiak azterketari kalifikazioak emango dizkio eta, hark hala eskatuko balu, probak ikusteko aukera ere bai. Azterketariak hurrengo hiru lanegun izango ditu berrikuspen-eskaera aurkezteko, eta euskaltegiak, jarraian, beste hiru lanegun erantzuteko.

Edonola ere, erantzuna deialdiaren egutegian idazmen-proba egiteko ezarritako data baino hiru lanegun lehenago eman beharko du euskaltegiak, eskabidea ontzat emanez gero HABEk azterketari idazmeneko proba aurkezteko bidea egin diezaion.

b) Azterketariak HABEn eskatu ahal izango du HABEk antolatutako probetan lortutako kalifikazioa berrikusteko, eskaerak arrazoituz, azterketaldi bakoitzean ezarritako epeen barruan eta ezarritako jarraibideei lotuz. Kalifikazioak berrikusteko eskariek nahikoa funts edo oinarri izan behar dute; hau da, ondo arrazoituta eta trebetasunez trebetasun adieraziko dituzte beren motibazioak.

3.– Gora jotzeko errekurtsok.

Interesdunek, gora jotzeko errekurtsok aurkeztu ahal izango diote HABEko zuzendari nagusiari, aurreko erantzunen inguruko erabakia HABEren atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean. Behin betiko emaitzak azken proba egin ondorengoak izango dira.

Errekurtsok ebazteko, HABEko zuzendari nagusiak lurralde-arduradunari, mailaz mailako Epaimahaiaren buruari edo Azterketa Batzordeko buruari eska liezaieke errekurtsoren edukiari buruzko txostena.

Halaber, deialdi honetan parte hartzen ez duen kanpoko adituren baten irizpena ere eska lezake.

15. oinarria.– Informazioa, online tramitazioa eta argibide-eskaerak.

Deialdi honetan aurreikusitako prozeduren ondoriozko argitaratzeak eta jakinarazpenak www.habe.euskadi.eus atariaren bidez egingo dira, erreklamazioei eta kalifikazioen berrikuste-eskaerei eta administrazio-errekurtsoen ebazpenei dagozkienak izan ezik.

Era berean, azterketariak www.habe.euskadi.eus ataria erabiliz gauzatuko ditu oinarri hauetan horrela xedatutako izapideak, eta egiaztatze-gintza@habe.eus posta-helbide elektronikoa baliatuko du Ebazpen honen oinarri eta prozedurei buruzko edozein kontsultatarako.

16. oinarria.– Espedienteak ikustez.

Azterkariak www.habe.euskadi.eus atarian izango ditu kontsultagai idazmen- eta mintzamen-probetako kalifikazio-orriak, eta eskuragai izango ditu idazmen-proba (digitalizatua) eta mintzamen-probako grabazioa.

17. oinarria.– Datu pertsonalen babesa.

Egiaztatze-deialdi honetan adierazitako datu pertsonalak, bai eta egiaztatze-prozeduran zehar sortzen direnak ere, Tratamendu Jardueren Erregistroan (TJE) sartuko dira, «Euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetao ikasleentzako deialdiak», «Ikasleen dirulaguntzak» eta «Egiaztapen-probetarako eskatutako egokitzapenak» deituriko tratamendu-jardueretan edo horien ordezkotetan, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europako Batzordearen eta Europako Parlamentuaren Datuak Babesteari buruzko 2016/679 Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondoren zehazten diren helburuetarako:

- Deialdi honetan aurreikusitako prozedurak kudeatzeko.
- Euskararen ezagutzaren egiaztatze-agiriak HABEren erregistroan inskribatzeko, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Aginduaren 48. artikuluan dioenari jarraikiz.
- Emandako ziurtagiriak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateria helarazteko, urriaren 16ko 222/2012 Dekretuak agintzen duen moduan, deialdi honetan gaitasun-maila egiaztatzen dutenenak. Erregistro horretan dauden datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria da. Bertan jasotako datu pertsonalen gaineko eskubideak Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Zerbitzu Zuzendaritzan gauzatu behar dira.
- Euskaltegietako eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetao ikasleak kudeatzeko: ikas-prozesua, euskara-mailaren egiaztapena eta dirulaguntzaren kudeaketa.

HABEko zuzendari nagusia izango da tratamenduaren administrazio-organo arduraduna.

Tratamendua beharrezkoa da lege ezarritako betebeharrak gauzatzeko (29/1983 Legea, aza-roaren 25ekoa, HABE sortzekoa eta Euskaltegiak arautzekoa), eta interes publikoaren izenean egiten den xede bat gauzatzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak egikaritzeko (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea).

Interesdunek eskubidea dute beren datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta beren datuen tratamendua mugatzeko nahiz tratamenduaren aurka egiteko ere, informazio gehigarrian adierazten den moduan. Halaber, bere datuen tratamenduari buruzko informazio osagarria eskura dezake helbide honetan: <https://www.habe.euskadi.eus/datu-pertsonalen-babesa-haben/s23-edukiak/eu/>

Egiaztatze-prozesua amaitu eta gero, lau hizkuntza-trebetasunak neurtzeko egindako probak prestakuntza-helburuetarako, ikerketa-lanetarako edo estatistikarako erabili ahal izango ditu HABEk betiere probok barneratuta dituzten datu pertsonalak disoziatu ondoren, indarrean dagoen legediak agintzen duen moduan.

18. oinarria.— Jarduerak isilpean gorde beharra.

Egiaztatze-deialdian parte hartzeko izendatutako aztertzaile, tutore eta ikertzaileen, maila bakoitzeko epaimahaikideen, Lurralde Batzordeetako kideen edo Azterketa Batzordeko kideen eta administrazio-langileen betebeharra da isilpean gordetzea egiaztatze-prozesuan beren funtzioa betetzeagatik parte hartzen duten alderdiekin zerikusia duten gertakari, dokumentu, kalifikazio-proposamen, deliberazio eta egoerak.

III. ERANSKINA

2025-2026 IKASTURTEAN A1 ETA A2 MAILAK EGIAZTATZEKO MAILAREN ATALASEAREN GAINEKO EBALUAZIO-JARDUEREN ETA 2026. URTEAN B1, B2, C1 ETA C2 MAILAK EGIAZTATZEKO AZTERKETEN EZAUGARRIAK, ANTOLAMENDU-MODUA ETA ATALETZ ATALETOKO KALIFIKAZIOAK

1.– Ebaluazio-irizpideak.

A1 eta A2 gaitasun-mailak egiaztatzeke mailaren atalasearen gaineko ebaluazio-jardueretan eta B1, B2, C1 eta C2 gaitasun-mailak egiaztatzeke azterketetan oinarri hartuko dira A1, A2, B1, B2, C1 zein C2 mailetakoko ebaluazio-irizpideak eta eskalak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren Aginduz 2015eko uztailaren 22an indarrean jarritako HEOCaren «Ebaluazioa» atalean jasotakoaren arabera.

2.– Maila bakoitzaren ezaugarriak, antolamendu-modua eta atalez ataleko kalifikazioak.

A1 maila: hasierako erabiltzailea.

A1 gaitasun-mailako agiria lortzeko, ikasleak lau trebetasunetan egindako ebaluazio-jarduerak hartuko ditu aintzat irakasleak, baita jarduera horietan ikasleak erakutsitako arrakasta- eta eragin-kortasun-maila ere.

Ebaluazio-jarduera honen emaitzak agerian utziko du ikasleak bereganaturik dituela A1 mailarako HEOCean zehaztutako helburuak, orokorrak zein trebetasunez trebetasun emandakoak. Maila hau gainditzeko, beraz, helburuotan adierazitako gaitasun komunikatiboaren adierazle diren ekintza komunikatiboak gauzatzeko gai dela erakutsi beharko du ikasleak. Hasierako erabiltzailearen maila honetan, mintzameneko ekintza komunikatiboak erabat galde-erantzun motz eta zehatzen bidez osatutako elkarriketak izango dira.

Ikasleak mailaren amaieran A1 mailako ebaluazio-irizpideen balioespen-eskalan bigarren deskripzioan zehaztutakora iritsi beharko du, lau trebetasunetarako zehaztutakora iritsi ere. Arian-arian egindako ikaslearen ekoizpenak jaso eta gorde egingo ditu irakasleak, eta euskaltegiak edota autoikaskuntzarako zentroak emaitzak, akta batera bildu ondoren, Ebazpen honen I. eranskineko 7.d) oinarrian ezartzen denari jarraikiz.

Euskaltegi bakoitzak edo euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzak bere Euskaltegiaren curriculum-proiektuan indarrean ditu bere ebaluazio-sistema eta irizpideak. Ondorioz, ebaluazio-gintza horren azkeneko katebegi, gutxieneko ezaugarri hauek biltzen dituen mailaren atalasearen gaineko ebaluazio-jarduera burutuko du ikasleak, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Aginduak xedatutakoaren arabera, eta euskaltegiaren ECPari jarraikiz:

Entzumen-jarduera:

Ikasleak eguneroko harremanetan oinarrituriko A1 mailako testu bat jasotzen duen audio-grabazio bat entzungo du ebaluazio-jarduera honetan. Ikasleak, audio-grabazio horretan entzundakoari buruzko itemei egoki erantzunez, entzundakoa ulertu duela frogatu beharko du.

Irakurmen-jarduera:

Ikasleari A1 mailako testu bat(zuk) emango zai(zki)o irakurtzeko. Jarraian, ikasleak, jarritako item batzuei erantzunez, testu hori(ek) ulertu d(it)uela frogatu beharko du.

Idazmen-jarduera:

Ikasleari A1 mailari dagokion egoera eta testuinguru jakin bati egokitutako testu bat(zuk) idaztea eskatuko zaio, ekintza komunikatibo bat gauzatzeko.

Ikasleak, gutxienez 30 hitzeko testu bat idatziko du, eskatutako ekintza komunikatiboa gauzatzeko.

Mintzamen-jarduera:

Ikasleak binaka elkarreraginean jarriz burutuko da jarduera hau, irakaslearen edo irakasleen gidaritzapean.

Probak bi jarduera izango ditu:

a) Sarreran, ikasleak bere buruaren aurkezpena egingo du irakaslearen aurrean. Ikasleak informazio lagungarria izango du.

b) Ondoren, ikasleak aurrez prestatutako eta A1 mailari dagokion egoera eta testuinguru jakin bati egokitutako gai bati buruzko ekintza komunikatibo bat gauzatuko du elkarreraginean beste ikasle batekin. Ikasleak informazio lagungarria izango du.

Ikasle bakoitzak, gutxienez, hiru minutuko solasaldia burutu beharko du (sei minutu bikoteko) jarduera hau gainditzeko.

A2 maila: oinarrizko erabiltzailea.

A2 gaitasun-mailako agiria lortzeko, ikasleak lau trebetasunetan egindako ebaluazio-jarduerak hartuko ditu aintzat irakasleak, baita jarduera horietan ikasleak erakutsitako arrakasta- eta eragin-kortasun-maila ere.

Ebaluazio-jarduera honen emaitzak agerian utziko du ikasleak bereganaturik dituela A2 mailarako HEOCean zehaztutako helburuak, orokorrak zein trebetasunez trebetasun emandakoak. Maila hau gainditzeko, beraz, helburuotan adierazitako gaitasun komunikatiboaren adierazle diren ekintza komunikatiboak gauzatzeko gai dela erakutsi beharko du ikasleak. Oinarrizko erabiltzailearen maila honetan, mintzameneko ekintza komunikatiboak galde-erantzunen bidez osatutako elkarrizketak izango dira.

Ikasleak mailaren amaieran A2 mailako ebaluazio-irizpideen balioespen-eskalan bigarren deskripzioan zehaztutakora iritsi beharko du, lau trebetasunetarako zehaztutakora iritsi ere. Arian-arian egindako ikaslearen ekoizpenak jaso eta gorde egingo ditu irakasleak, eta euskaltegiak edota autoikaskuntzarako zentroak emaitzak, akta batera bildu ondoren, Q87 aplikazioko dagokion tokian sartuko ditu, Ebazpen honen I. eranskineko 7.d) oinarrian ezartzen denari jarraikiz.

Euskaltegi bakoitzak edo euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzak bere Euskaltegiaren curriculum-proiektuan indarrean ditu bere ebaluazio-sistema eta irizpideak. Ondorioz, ebaluazio-gintza horren azkeneko katebegi, gutxieneko ezaugarri hauek biltzen dituen mailaren atalasearen gaineko ebaluazio-jarduera burutuko du ikasleak, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Aginduak xedatutakoaren arabera, eta euskaltegiaren ECPari jarraikiz:

Entzumen-jarduera:

Ikasleak eguneroko egoera ezagunetan oinarrituriko A2 mailako testu bat jasotzen duen audio-grabazio bat entzungo du ebaluazio-jarduera honetan. Ikasleak, audio-grabazio horretan entzundakoari buruzko itemei egoki erantzunez, entzundakoa ulertu duela frogatu beharko du.

Irakurmen-jarduera:

Ikasleari A2 mailako testu bat(zuk) emango zai(zki)o irakurtzeko. Jarraian, ikasleak, jarritako item batzuei erantzunez, testu hori(ek) ulertu d(it)uela frogatu beharko du.

Idazmen-jarduera:

Ikasleari A2 mailari dagokion egoera eta testuinguru jakin bati egokitutako testu bat(zuk) idaztea eskatuko zaio, ekintza komunikatibo bat gauzatzeko.

Ikasleak, gutxienez 60 hitzeko testu bat idatziko du, eskatutako ekintza komunikatiboa gauzatzeko.

Mintzamen-jarduera:

Ikasleak binaka elkarreraginean jarritz burutuko da jarduera hau, irakaslearen edo irakasleen gidaritzapean.

Probak bi atal izango ditu:

a) Sarreran, ikasleak bere buruaren aurkezpena egingo du irakaslearen aurrean. Ikasleak informazio lagungarria izango du.

b) Ondoren, ikasleak aurrez prestatutako eta A2 mailari dagokion egoera eta testuinguru jakin bati egokitutako gai bati buruzko ekintza komunikatibo bat gauzatuko du elkarreraginean beste ikasle batekin. Ikasleak informazio lagungarria izango du.

Ikasle bakoitzak, gutxienez, lau minutuko solasaldia burutu beharko du (zortzi minutu bikoiteko) jarduera hau gainditzeko.

B1 maila: erabiltzaile independentea.

Entzumen-proba:

Azterketariak eguneroko bizitzako edo ohiko gaien inguruko testu grabatua entzungo du, eta ulertu duela frogatzeko zenbait egiteko burutu beharko ditu: ideia nagusia jaso, informazio garrantzitsua bereizi, xehetasun batzuk nabarmendu... Entzungaia testu luze bat izan liteke edo zenbait testu labur. Entzun aurretik, azterketariak galderak irakurtzeko denbora jakin bat izango du, eta, entzungai-motaren arabera, grabazioak behin edo bitan entzuteko aukera izango du.

Testu guztiak maila honetako ekintza komunikatibo baten adierazle zuzen eta egokiak izango dira, izan aurrez aurreko solasaldietatik jasotakoak (elkarrizketa sinpleak, ipuinak, gertaerak, errezetak...), izan komunikabideetatik jasotakoak (albiste laburrak, eguraldi-iragarpenak, kontaketak, iragarkiak...) eta HEOCean B1 mailarako zedarritutako edukiez osatutakoak.

Azterketariari ahozko testu baten edo testu batzuen gaineko galdera-sorta egingo zaio, testua zenbateraino ulertu duen egiaztatzeko. Horri begira teknika hauek erabiliko dira: a) erantzun itxiko itemak (egia/gezurra erakoak, erantzun alternatibokoak, aukera anitzekoak, lotzea edo bikoteak osatzea, zati bat testuaren barruan birkokatzea edota informazio-transferentzia) eta b) erantzun gidatuko itemak (zuriuneak betetzea edo cloze testa).

Proba honek 20 puntu izango ditu denera, eta, gainditzeko, gutxienez, 10 lortu beharko dira. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

Probaren iraupena eskatutako egitekoa egoki betetzeak beharrezkoa duen neurrikoa izango da, eta betiere, 25 minutu ingurukoa.

Mintzamen-proba:

Probak hiru jarduera izango ditu:

a) Sarreran, azterketariak aztertzailearekin elkarrizketa bat izango du, eta hainbat gairi buruzko galderei erantzungo die (norberaren ezaugarriak, familia, zaletasunak, lana, bidaia...).

b) Jarraian, aurrez prestatutako gai bati buruzko ekintza komunikatibo bat gauzatuko du. Enuntziatuak argi azalduko ditu ekintza komunikatiboaren zer-nolakoak: testu-generoa (azalpena, argudiozko adierazpena, kexa edo erreklamazioa, gertaeren kontaketa, pasadizo barregarriak...) eta B1 gaitasun-mailari dagokion egoera eta testuinguru jakin bat (erabilera-esparrua, enuntziatzailearen rola, hartzailearen rola eta xede edo asmo komunikatiboa).

Azterketariak 10 minutu izango ditu bigarren atala prestatzeko, eta aztertzaileen aurrean, gutxienez, 2 minutu inguruz hitz egitea eskatuko zaio.

Azterketaria prestatuta-denboran berak landutako eskemaz balia daiteke mintzamen-proba hau egiteko, baina ez da onartuko aldezturik prestatutako testurik irakurtzea. Aztertzaileek, tarteka, gaiaren inguruan egin ditzaketen galderei ere erantzun beharko die azterketariak.

c) Bukatzeko, elkarrizketa izango du aztertzailearekin edo beste azterketari batekin elkarreaginean, emandako zenbait argazki eta horiei lotutako egoera eta egitekoa oinarri hartuta. Elkarrizketak bost minutu inguru iraungo du, azterketariko bi minutu eta erdi.

Mintzamina neurtzeko irizpideak hauek izango dira: 1) testuinguruarekiko eta testuarekiko egoki jardun duen; 2) azalpenean zein elkarreaginean diskurtsoa koherentea, argia eta ongi lotua den; 3) jarioaduna eta ongi ahoskatua den; 4) aberatsa den, eta 5) zuzen adierazi duen.

Proba honek, gehienez, 30 puntu izango ditu, eta, gainditzeko, 15 puntu beharko dira.

Irakurmen-proba:

Azterketariak, emandako testua edo testuak irakurri ondoren, zenbait egiteko burutu beharko ditu. Testuaren ulermen orokorra eta xehea eskatuko zaio, eta betiere, testutik informazioa ateratzea. Testu guztiak maila honetako ekintza komunikatibo baten adierazle zuzen eta egokiak izango dira (lagunen gutunak, errezetak, ipuin eta kontaketa errazak, gai ezagunetako azalpen-testuak...), eta HEOCean B1 mailarako zedarritutako edukiez osatutakoak.

Proba honek 20 puntu izango ditu denera, eta, gainditzeko, 10 puntu lortu beharko dira. Eran-tzun okerregatik ez da punturik kenduko.

Probaren iraupena eskatutako egitekoa egoki betetzeak beharrezkoa duen neurrikoa izango da, eta betiere, 35 minutu ingurukoa.

Idazmen-proba:

Azterketariak, gutxienez, 140 hitzeko testu bat edo 100 inguruko bi testu idatziko ditu, ekintza komunikatibo jakin bat gauzatuz. Probaren enuntziatuak argi azalduko ditu ekintza komunikatiboaren zer-nolakoak: testu-generoa (mezu laburrak, pertsonen, tokien eta gauzen deskribapen laburrak, gutun pertsonalak, kontaketa laburrak, eskari-gutunak, aholkuak eta gomendioak, curriculum vitae...), eta B1 gaitasun-mailari dagokion egoera eta testuinguru jakin bat (erabilera-esparrua, enuntziatzailearen rola, hartzailearen rola eta xede edo asmo komunikatiboa).

Idazmen-proban eskatutako hitz-kopuruaren gutxienekoari dagokionez, aztertzaileak irizpideok beteko ditu eta ondoriozko kalifikazioa emango:

- Azterketariak eskatutako hitz-kopurua idatzi eta mailari dagozkion gutxienekoak betetzen baditu, 15-30 puntu bitartean emango zaizkio.
- Eskatutako hitz-kopurura iristen ez diren idazlanak balioesterakoan, % 20 baino gutxiagogatik iristen ez den azterketariari kenketa egingo zaio puntuazio orokorrean, ondoren zehazten denaren arabera:

Hitz-kopurua	140
-1 puntu	127-139
-2 puntu	120-126
-3 puntu	113-119

Halaber, % 20 baino hitz gehiago falta zaizkion idazmen-proba honela kalifikatuko da:

Ez-gai: 5 puntu	≤ 112
-----------------	------------

Ekintza komunikatiboaren ebaluaziorako, irizpide hauek hartuko dira kontuan: 1) testuiguruarekiko eta testuarekiko egokitasuna; 2) koherentzia; 3) kohesioa; 4) aberastasuna eta 5) zuzentasuna.

Proba honek 30 puntu izango ditu gehienez, eta, gainditzeko, 15 puntu lortu beharko dira.

Probaren iraupena 60 minutukoa izango da.

Hitzak zenbatzeko, irizpideok erabiliko dira:

- Eskainitako izenburua ez da kontuan hartuko.
- Eskutitz edo inprimaki erako testuetan (ohar, mezu elektronikoa, eskabide-orri...) hasierako agurretik hasi eta amaierako agurrean amaituko da kontatzen. Beraz, ez dira zenbatuko igorle zein hartzailearen datu hutsak (izen-abizenak, helbidea...). Datari dagokionez, lau hitz zenbatuko dira gehienez.
- Sortutako testuari erreparatuko zaio soilik. Beraz, proposaturiko egoera komunikatibotik hitzez hitz kopiatutako esaldiak ez dira kontuan hartuko.

Horrez gain:

- Hitz-elkarketak: Ebaluazio eta Egiaztatzerako Arloak horri buruz emandako irizpideei jarraikiz zenbatuko dira, Euskaltzaindiak hitz-elkarketak idazteko arauen arabera.
- Araua bete gabe idatzitako hitzak zuzen idatzita baleude bezala zenbatuko dira.
- Zenbakiak hitz bakar bezala zenbatuko dira.

Antolaketa:

Azterketak bi eremu ezberdinetan egingo dira: trebetasun hartzaileak (irakurmena eta entzumena) euskaltegietan eta autoikaskuntzarako zentro homologatuetan, eta trebetasun sortzaileak (idazmena eta mintzamina) lurraldeka eta lurralde bakoitzean barruti bateratuan.

Kalifikazioak, ponderazioa eta emaitzak:

a) B1 mailako proben kalifikazioak honela emango dira:

Trebetasuna	Gehienez	Gutxienez
Irakurmena	20	10
Idazmena	30	15
Entzumena	20	10
Mintzamina	30	15
Guztira	100	50

b) Ponderazioa:

Idazmen-probari dagozkion 30 puntuak honako ponderazio-taula honen arabera banatuko dira: egokitasuna, % 10; koherentzia, % 25; kohesioa, % 15; aberastasuna, % 20, eta zuzentasuna, % 30.

Mintzamen-probari dagozkion 30 puntuak honako ponderazio-taula honen arabera banatuko dira: egokitasuna, % 10; koherentzia eta kohesioa, % 20; jarriotasuna, % 25; aberastasuna, % 20, eta zuzentasuna, % 25.

c) Emaitzak:

Irakurmen-proba: Gai / Ez-gai.

Idazmen-proba: Gai / Ez-gai.

Entzumen-proba: Gai / Ez-gai.

Mintzamen-proba: Gai / Ez-gai.

Guztira: Gai / Ez-gai.

B2 maila: erabiltzaile aurreratua.

Entzumen-proba:

Azterketariak eguneroko bizitzako edo ohiko gaien inguruko hainbat testu grabatu entzungo ditu, eta ulertu duela frogatzeko, zenbait egiteko burutu beharko ditu: ideia nagusia jaso, informazio garrantzitsua bereizi, xehetasun batzuk nabarmendu... Jakin ere jakin beharko du hizlariaren jarrera bereizten eta testuari dagozkion ondorioak ateratzen. Entzungaia testu luze bat izan liteke edo zenbait testu labur. Entzun aurretik, azterketariak galderak irakurtzeko denbora jakin bat izango du, eta, entzungai-motaren arabera, grabazioak behin edo bitan entzuteko aukera izango du.

Testu guztiak maila honetako ekintza komunikatibo baten adierazle zuzen eta egokiak izango dira, izan aurrez aurreko solasaldietatik jasotakoak (gertaerak, kronikak, azalpen didaktikoak,

prozesuen deskribapenak...), izan komunikabideetatik jasotakoak (albisteak, elkarrizketak, dokumentalak...) eta HEOCean B2 mailarako zedarritutako edukiez osatutakoak.

Azterketariari ahozko testu baten edo testu batzuen gaineko galdera-sorta egingo zaio, testua zenbateraino ulertu duen egiaztatzeko. Horri begira teknika hauek erabiliko dira: a) erantzun itxiko itemak (egia/gezurra erakoak, erantzun alternatibokoak, aukera anitzekoak, lotzea edo bikoteak osatzea, zati bat testuaren barruan birkokatzea edota informazio-transferentzia) eta b) erantzun gidatuko itemak (zuriuneak betetzea edo cloze testa).

Proba honek 20 puntu izango ditu denera, eta, gainditzeko, gutxienez, 10 lortu beharko dira. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

Probaren iraupena eskatutako egitekoa egoki betetzeak beharrezkoa duen neurrikoa izango da, eta betiere, 25 minutu ingurukoa.

Mintzamen-proba:

Probak hiru jarduera izango ditu:

a) Sarreran, azterketariak aztertzailearekin elkarrizketa bat izango du, eta zenbait gairi buruzko galderei erantzungo die (norberaren ezaugarriak, familia, zaletasunak, lana, bidaiak...).

b) Jarraian, aurrez prestatutako gai bati buruzko ekintza komunikatibo bat gauzatuko du. Enuntziatuak argi azalduko ditu ekintza komunikatiboaren zer-nolakoak: testu-generoa (azalpena, argudiozko adierazpena, kexa edo erreklamazioa, gertaeren kontaketa, pasadizo barregarriak...) eta B2 gaitasun-mailari dagokion egoera eta testuinguru jakin bat (erabilera-esparrua, enuntziatzailearen rola, hartzailearen rola eta xede edo asmo komunikatiboa).

Azterketariak 10 minutu izango ditu bigarren atal hau prestatzeko, eta aztertzaileen aurrean, gutxienez, 2 minutu inguruz hitz egitea eskatuko zaio.

Azterketaria prestatuta-denboran berak landutako eskemaz balia daiteke mintzamen-proba hau egiteko, baina ez da onartuko aldez aurretik prestatutako testurik irakurtzea. Aztertzaileek, tarteka, gaiaren inguruan egin ditzaketen galderei ere erantzun beharko die azterketariak.

c) Bukatzeko, elkarrizketa izango du aztertzailearekin edo beste azterketari batekin elkarreaginean, emandako zenbait argazki eta horiei lotutako egoera eta egitekoa oinarri hartuta. Elkarrizketak bost minutu inguru iraungo du (azterketariko bi minutu eta erdi).

Mintzamina neurtzeko irizpideak hauek izango dira: 1) testuinguruarekiko eta testuarekiko egoki jardun duen; 2) azalpenean zein elkarreaginean diskurtsoa koherentea, argia eta ongi lotua den; 3) jarioaduna eta ongi ahoskatua den; 4) mailako baliabideez osatutakoa den, eta 5) zuzen adierazi duen.

Proba honek, gehienez, 30 puntu izango ditu, eta, gainditzeko, 15 puntu beharko dira.

Irakurmen-proba:

Azterketariak, emandako testua edo testuak irakurri ondoren, zenbait egiteko burutu beharko ditu. Testuaren ulermen orokorra eta xehea eskatuko zaio, eta betiere, testutik informazioa ateratzea. Testu guztiak maila honetako ekintza komunikatibo baten adierazle zuzen eta egokiak izango dira (toki publikoetako instrukzio edo argibideak, hitzaldi baten laburpena, katalogoak, eskuorriak eta agiri ofizialak, administrazioako idazkiak, bilera-aktak, egunkariko erreportajeak, lan-egitasmoak...), eta HEOCean B2 mailarako zedarritutako edukiez osatutakoak.

Proba honek 20 puntu izango ditu denera, eta, gainditzeko, 10 puntu lortu beharko dira. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

Probaren iraupena eskatutako egitekoa egoki betetzeak beharrezkoa duen neurrikoa izango da, eta betiere, 45 minutu ingurukoa.

Idazmen-proba:

Azterketariak, gutxienez, 200 hitzeko testu bat edo 150 inguruko bi testu idatziko ditu, ekintza komunikatibo jakin bat gauzatuz. Probaren enuntziatuak argi azalduko ditu ekintza komunikatiboaren zer-nolakoak: testu-generoa (administrazioko idazkiak, jakinarazpen-gutunak, erreportaje edo albiste baten laburpena, argudio-testu laburrak, biografiak...), eta B2 gaitasun-mailari dagokion egoera eta testuinguru jakin bat (erabilera-esparrua, enuntziatzailearen rola, hartzailearen rola eta xede edo asmo komunikatiboa).

Idazmen-proban eskatutako hitz-kopuruaren gutxieneakoari dagokionez, aztertzaileak irizpideok beteko ditu eta ondoriozko kalifikazioa emango:

- Azterketariak eskatutako hitz-kopurua idatzi eta mailari dagozkion gutxieneakoak betetzen baditu, 15-30 puntu bitartean emango zaizkio.
- Eskatutako hitz-kopurura iristen ez diren idazlanak balioesterakoan, % 20 baino gutxiagogatik iristen ez den azterketariari kenketa egingo zaio puntuazio orokorrean, ondoren zehazten denaren arabera:

Hitz-kopurua	200
-1 puntu	181-199
-2 puntu	172-180
-3 puntu	161-171

Halaber, % 20 hitz baino gehiago falta zaizkion idazmen-proba honela kalifikatuko da:

Ez-gai: 5 puntu	≤ 160
-----------------	-------

Ekintza komunikatiboaren ebaluaziorako, irizpide hauek hartuko dira kontuan: 1) testuinguruarekiko eta testuarekiko egokitasuna; 2) koherentzia; 3) kohesioa; 4) aberastasuna eta 5) zuzentasuna.

Proba honek 30 puntu izango ditu gehienez, eta, gainditzeko, 15 puntu lortu beharko dira.

Probaren iraupena 75 minutukoa izango da.

Hitzak zenbatzeko, irizpideok erabiliko dira:

- Eskainitako izenburua ez da kontuan hartuko.
- Eskutitz edo inprimaki erako testuetan (ohar, mezu elektroniko, eskabide-orri...) hasierako agurretik hasi eta amaierako agurrean amaituko da kontatzen. Beraz, ez dira zenbatuko igorle zein hartzailearen datu hutsak (izen-abizenak, helbidea...). Datari dagokionez, lau hitz zenbatuko dira gehienez.
- Sortutako testuari erreparatuko zaio soilik. Beraz, ez dira kontuan hartuko proposaturiko egoera komunikatibotik hitzez hitz kopiatutako esaldiak.

Horrez gain:

- Hitz-elkarketak: Ebaluazio eta Egiaztatzerako Arloak horri buruz emandako irizpideei jarraituz zenbatuko dira, Euskaltzaindiak hitz-elkarketak idazteko arauen arabera.
- Araua bete gabe idatzitako hitzak zuzen idatzita baleude bezala zenbatuko dira.
- Zenbakiak hitz bakar bezala zenbatuko dira.

Antolaketa:

Azterketak bi eremu ezberdinetan egingo dira: trebetasun hartzaileak (irakurmena eta entzumena) euskaltegietan eta autoikaskuntzarako zentro homologatuetan, eta trebetasun sortzaileak (idazmena eta mintzamina) lurraldeka eta lurralde bakoitzean barruti bateratuan.

Kalifikazioak, ponderazioa eta emaitzak:

a) B2 mailako proben kalifikazioak honela emango dira:

Trebetasuna	Gehienez	Gutxienez
Irakurmena	20	10
Idazmena	30	15
Entzumena	20	10
Mintzamina	30	15
Guztira	100	50

b) Ponderazioa:

Idazmen-probari dagozkion 30 puntuak honako ponderazio-taula honen arabera banatuko dira: egokitasuna, % 13; koherentzia, % 24; kohesioa, % 17; aberastasuna, % 20, eta zuzentasuna, % 26.

Mintzamen-probari dagozkion 30 puntuak honako ponderazio-taula honen arabera banatuko dira: egokitasuna, % 10; koherentzia eta kohesioa, % 20; jarriotasuna, % 25; aberastasuna, % 20, eta zuzentasuna, % 25.

c) Emaitzak:

Irakurmen-proba: Gai / Ez-gai.

Idazmen-proba: Gai / Ez-gai.

Entzumen-proba: Gai / Ez-gai.

Mintzamen-proba: Gai / Ez-gai.

Guztira: Gai / Ez-gai.

C1 maila: erabiltzaile gaitua.

Entzumen-proba:

Azterketariak lagunarteko, lan-esparruko edota komunikabideetako gaien inguruko zenbait testu grabatu entzungo ditu, eta ulertu duela frogatzeko zenbait egiteko burutu beharko ditu: ideia nagusia jaso, informazio garrantzitsua eta xehetasunak bereizi eta nabarmendu... Era berean,

informazioa eta iritzia bereizi edo ondorioak ere atera beharko ditu. Entzun aurretik, azterketariak galderak irakurtzeko denbora jakin bat izango du, eta, entzungai-motaren arabera, grabazioak behin edo bitan entzuteko aukera izango du.

Testu guztiak maila honetako ekintza komunikatibo baten adierazle zuzen eta egokiak izango dira (lan-prozedurak, iragarkiak, erreportajeak, hedabideetako iruzkinak, eztabaidak, esketxak, antzezlanak...) eta HEOCean C1 mailarako zedarritutako edukiez osatutakoak.

Azterketariari ahozko testu baten edo testu batzuen gaineko galdera-sorta egingo zaio, testua zenbateraino ulertu duen egiaztatzeko. Horri begira teknika hauek erabiliko dira: a) erantzun itxiko itemak (erantzun alternatibokoak, aukera anitzekoak, lotzea edo bikoteak osatzea, zati bat testuaren barruan birkokatzea edota informazio-transferentzia) eta b) erantzun gidatuko itemak (zuriuneak betetzea, cloze testa edota akatsak zuzentzea).

Proba honek 20 puntu izango ditu, eta, gainditzeko, gutxienez, 10 lortu beharko dira. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

Probaren iraupena eskatutako egitekoa egoki betetzeak beharrezkoa duen neurrikoa izango da, eta betiere, 30 minutu ingurukoa.

Mintzamen-proba:

Probak bi jarduera izango ditu:

a) Aurrez prestatutako gai bati buruzko ekintza komunikatibo bat gauzatuko du azterketariak. Enuntziatuak argi azalduko ditu ekintza komunikatiboaren zer-nolakoak: testu-generoa (izaeren eta sentipenen deskribapenak, iruzkinak, jendaurreko adierazpenak, laburpenak, aholkuak, argibideak eta jarraibideak, balioespen eta kexuak, eztabaidak, galdeketak...) eta C1 gaitasun-mailari dagokion egoera eta testuinguru jakin bat (erabilera-esparrua, enuntziatzailearen rola, hartzailearen rola eta xede edo asmo komunikatiboa). Egiteko hau prestatzeko testu-aipamenak, elementu grafikoak edo irudiak eman dakizkioke azterketariari.

Azterketariak 20 minutu izango ditu gaia prestatzeko, eta aztertzaileen aurrean, gutxienez, 5 minutu inguruz hitz egitea eskatuko zaio.

Azterketaria prestaketa-denboran berak landutako eskemaz balia daiteke mintzamen-proba hau egiteko, baina ez da onartuko aldez aurretik prestatutako testurik irakurtzea. Aztertzaileek, tarteka, gaiaren inguruan egin ditzaketen galderei ere erantzun beharko die azterketariak.

b) Bat-bateko elkarrizketa izango du aztertzailearekin edo beste azterketari batekin argazki edo beste elementu grafikoez baliatuz. Elkarrizketak hamar minutu inguru iraungo du, azterketariko bost minutu.

Mintzamina neurtzeko irizpideak hauek izango dira: 1) testuinguruarekiko eta testuarekiko egoki jardun duen; 2) azalpenean zein elkarreraginean diskurtsoa koherentea, argia eta ongi lotua den; 3) jarioaduna eta ongi ahoskatua den; 4) aberatsa den, eta 5) zuzen adierazi duen.

Proba honek, gehienez, 30 puntu izango ditu, eta, gainditzeko, 15 puntu beharko dira.

Irakurmen-proba:

Azterketariak, emandako testuak irakurri ondoren, zenbait egiteko burutu beharko ditu. Testuaren esanahi orokorra, ideia nagusiak nahiz bigarren mailakoak edo xehetasunak, edota espresuki testuan adierazten ez diren ideiak, hala nola komunikazio-xedea, idazlearen jarrera, ikuspuntua edo iritzia antzematea eskatuko zaio, besteak beste. Egiteko horiek jarduera-mota hauek erabiliz

egingo dira: aukera anitzeko galderak, erantzun laburrekoak, testu-zatiei dagozkien ideiak aukeratu, lotura egokiak egin, testua ordenatu, laburtu, ideiak edota paragrafoak lotu. Testu guztiak maila honetako ekintza komunikatibo baten adierazle zuzen eta egokiak izango dira (azalpen-artikuluak, alegiak eta kondairak, editorialak, lan-egitasmoak, lan-hitzarmenak, iritzi-artikuluak...), eta HEOCean C1 mailarako zedarritutako edukiez osatutakoak.

Bestalde, zenbait testu baliatuko dira azterketariaren sintaxiaren eta lexikoaren erabilera neurtzeko. Horretarako, honako jarduera hauei erantzutea eskatuko da: azpimarratutako hitzen sinonimoak jarri emandako testuan, aukera anitzekoen bidez lexikoa aukeratu, hitz eratorri eta elkartuak erabiliz testuak berridatzi, aukera anitzen bidez egitura sintaktikoak osatu, proposatutako esaldien baliokideak eman edota egitura koherenteak sortu testua osatzeko.

Proba honek 20 puntu izango ditu, eta, gainditzeko, 10 puntu lortu beharko dira. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

Probaren iraupena eskatutako egitekoa egoki betetzeak beharrezkoa duen neurrikoa izango da, eta betiere, 60 minutu ingurukoa.

Idazmen-proba:

Azterketariak, gutxienez, 300 hitzeko testu bat edo bi testu idatziko ditu bien artean 300 hitz gutxienez izango dituztenak, ekintza komunikatibo jakin bat gauzatuz. Probaren enuntziatuak argi azalduko ditu ekintza komunikatiboaren zer-nolakoak: testu-generoa (azalpen-artikuluak, bilera-aktak, erabilera-gidak, iritzi-artikuluak, kontaketak eta ipuinak, lan-proposamenak, erreportaje edo albiste baten laburpena...), eta C1 gaitasun-mailari dagokion egoera eta testuinguru jakin bat (erabilera-esparrua, enuntziatzailearen rola, hartzailearen rola eta xede edo asmo komunikatiboa).

Idazmen-proban eskatutako hitz-kopuruaren gutxienekoari dagokionez, aztertzaileak irizpideok beteko ditu eta ondoriozko kalifikazioa emango:

- Azterketariak eskatutako hitz-kopurua idatzi eta mailari dagozkion gutxienekoak betetzen baditu, 15-30 puntu bitartean emango zaizkio.
- Eskatutako hitz-kopurura iristen ez diren idazlanak balioesterakoan, % 20 baino gutxiagotik iristen ez den azterketariari kenketa egingo zaio puntuazio orokorrean, ondoren zehazten denaren arabera:

Hitz-kopurua	300
-1 puntu	271-299
-2 puntu	258-270
-3 puntu	241-257

Halaber, % 20 baino hitz gehiago falta zaizkion idazmen-proba honela kalifikatuko da:

Ez-gai: 5 puntu	≤ 240
-----------------	-------

Ekintza komunikatiboaren ebaluaziorako, irizpide hauek hartuko dira kontuan: 1) testuiguruarekiko eta testuarekiko egokitasuna; 2) koherentzia; 3) kohesioa; 4) aberastasuna eta 5) zuzentasuna.

Proba honek 30 puntu izango ditu gehienez, eta, gainditzeko, 15 puntu lortu beharko dira.

Probaren iraupena 90 minutukoa izango da.

Hitzak zenbatzeko, irizpide hauek erabiliko dira:

- Testuaren izenburua ez da kontuan hartuko.
- Eskutitz edo inprimaki erako testuetan (ohar, mezu elektronikoa, eskabide-orri...) hasierako agurretik hasi eta amaierako agurrean amaituko da kontatzen. Beraz, ez dira zenbatuko igorlearen edo hartzailearen datu hutsak (izen-abizenak, helbidea...). Datari dagokionez, lau hitz zenbatuko dira gehienez.
- Sortutako testuari erreparatuko zaio soilik. Beraz, proposaturiko egoera komunikatibotik hitzez hitz kopiatutako esaldiak ez dira kontuan hartuko.

Horrez gain:

- Hitz-elkarketak: Ebaluazio eta Egiaztatzerako Arloak horri buruz emandako irizpideei jarraikiz zenbatuko dira, Euskaltzaindiak hitz-elkarketak idazteko emandako arauari jarraikiz.
- Araua bete gabe idatzitako hitzak zuzen idatzita baleude bezala zenbatuko dira.
- Zenbakiak hitz bakar bezala zenbatuko dira.

Antolaketa:

Azterketak bi eremu ezberdinetan egingo dira: trebetasun hartzaileak (irakurmena eta entzumena) euskaltegietan eta autoikaskuntzarako zentro homologatuetan, eta trebetasun sortzaileak (idazmena eta mintzamina) lurraldeka eta lurralde bakoitzean barruti bateratuan.

Kalifikazioak, ponderazioa eta emaitzak:

a) C1 mailako proben kalifikazioak honela emango dira:

Trebetasuna	Gehienez	Gutxienez
Irakurmena	20	10
Idazmena	30	15
Entzumena	20	10
Mintzamina	30	15
Guztira	100	50

b) Ponderazioa:

Idazmen-probari dagozkion 30 puntuak honako ponderazio-taula honen arabera banatuko dira: egokitasuna, % 13; koherentzia, % 24; kohesioa, % 17; aberastasuna, % 20, eta zuzentasuna, % 26.

Mintzamen-probari dagozkion 30 puntuak honako ponderazio-taula honen arabera banatuko dira: egokitasuna, % 10; koherentzia eta kohesioa, % 20; jariotasuna, % 25; aberastasuna, % 20, eta zuzentasuna, % 25.

c) Emaitzak:

Irakurmen-proba: Gai / Ez-gai.

Idazmen-proba: Gai / Ez-gai.

Entzumen-proba: Gai / Ez-gai.

Mintzamen-proba: Gai / Ez-gai.

Guztira: Gai / Ez-gai.

C2 maila: erabiltzaile aditua.

Entzumen-proba:

Azterketariak, euskara batuan nahiz euskalkietan, gai orokorreko eta 4-5 minutu inguruko luzera duen testu grabatua bitan entzungo du, eta ulertu duela frogatzeko 50-80 hitzetan laburbilduko du entzundakoa, entzundako testuaren mezu edo esanahi nagusia adieraziz eta ideia nagusiak nahiz osagarriak identifikatuz Testua maila honetako ekintza komunikatibo baten adierazle zuzen eta egokia izango da (hedabideetako iruzkina, ahozko iritzia, azalpena, mahai-ingurua, hitzaldia, komunikazioa, lan-egitasmoa...) eta HEOCean C2 mailarako zedarritutako edukiez osatutakoa.

Entzumena ebaluatzerakoan, kontuan hartuko da: a) zer neurritan egin duen azterketariak agindu zaiona eta b) egoki egin duen.

Proba honek 20 puntu izango ditu, eta, gainditzeko, gutxienez, 10 lortu beharko dira.

Probaren iraupena eskatutako egitekoa egoki betetzeak beharrezkoa duen neurrikoa izango da, eta, betiere, 40 minutu ingurukoa.

Mintzamen-proba:

Azterketariak, aztertzaileen aurrean, ordu-erdi lehenago adieraziko zaion ekintza komunikatiboa gauzatuko du. Enuntziatuak argi azalduko ditu ekintza komunikatiboaren zer-nolakoak: testu-generoa (hitzaldia, komunikazioa, ahozko iruzkina, kronika, historia-kontakizuna...) eta C2 gaitasun-mailari dagokion egoera eta testuinguru jakin bat (erabilera-esparrua, enuntziatzailearen rola, hartzailearen rola eta xede edo asmo komunikatiboa). Azterketariak matrikulatzean zehazturiko espezialitate akademiko edo teknikoaren ikuspegitik jorratuko du egokitu zaion ekintza komunikatiboa.

Azterketariak 30 minutu izango ditu gaia prestatzeko, eta aztertzaileen aurrean, gutxienez, 10 minutu inguruz hitz egitea eskatuko zaio.

Azterketaria prestaketa-denboran berak landutako eskemaz balia daiteke mintzamen-proba hau egiteko, baina ez da onartuko aldez aurretik prestatutako testurik irakurtzea. Aztertzaileek, tarteka, gaiaren inguruan egin ditzaketen galderei ere erantzun beharko die azterketariak.

Mintzamina neurtzeko irizpideak hauek izango dira: 1) testuinguruarekiko eta testuarekiko egoki jardun duen; 2) azalpenean zein elkarreraginean diskurtsoa koherentea, argia eta ongi lotua den; 3) jarioduna eta ongi ahoskatua den; 4) aberatsa den, eta 5) zuzen adierazi duen.

Proba honek, gehienez, 30 puntu izango ditu, eta, gainditzeko, 15 puntu beharko dira. Ezinbestekoa izango da irizpide guztietan nahikoa izatea.

Irakurmen-proba:

Azterketariak 350-450 hitz inguru dituen testua irakurriko du, eta, ulertu duela frogatzeko, 50-80 hitzetan laburbilduko du irakurritakoa, irakurritako testuaren mezu edo esanahi nagusia adieraziz eta ideia nagusiak nahiz osagarriak identifikatuz. Testua maila honetako ekintza komunikatibo baten adierazle zuzen eta egokia izango da (iritzi-artikulu, txostena, lan-egitasmoa, testu juridikoa, saiakera, editoriala, azalpen-artikulu...), eta HEOCean C2 mailarako zedarritutako edukiez osatutakoa.

Irakurmena ebaluatzerakoan, kontuan hartuko da: 1) zer neurritan egin duen azterketariak agindu zaiona eta 2) egoki egin duen.

Proba honek 20 puntu izango ditu denera, eta, gainditzeko, 10 puntu lortu beharko dira.

Probaren iraupena eskatutako egitekoa egoki betetzeak beharrezkoa duen neurrikoa izango da, eta betiere, 40 minutu ingurukoa.

Idazmen-proba:

Azterketariak bi ariketa osatu beharko ditu idazmen-probaren barruan:

– Lehen ariketan, bitartekotza-jarduera bat egingo du. Azterketariak, emandako testu batean oinarrituta, hura berrekoitzi egin beharko du, proposatutako egoerara eta egitekora egokituz, eta betiere hartzailearen ezaugarriak kontuan izanik. Ariketa honetan, erreferentzia gisa, 150 hitz idatziko ditu 50 minutuan.

– Bigarren ariketan, gutxienez 350 hitzeko testu bat idatziko du 110 minutuan, ekintza komunikatibo jakin bat gauzatuz. Probaren enuntziatuak argi azalduko ditu ekintza komunikatiboaren zer-nolakoak: testu-generoa (azalpen- edo iritzi-artikulu, komunikazioa, txostena, lan-proposamena, erreportajea, editoriala, hitzaurrea...), eta C2 gaitasun-mailari dagokion egoera eta testuinguru jakin bat (erabilera-esparrua, enuntziatzailearen rola, hartzailearen rola eta xede edo asmo komunikatiboa). Azterketariak matrikulatzean zehazturiko espezialitate akademiko edo teknikoaren ikuspegitik jorratuko du egokitu zaion ekintza komunikatiboa.

Idazmen-probaren bigarren jardueran eskatutako hitz-kopuruaren gutxienekoari dagokionez, aztertzaileak irizpideok beteko ditu eta ondoriozko kalifikazioa emango:

– Azterketariak eskatutako hitz-kopurua idatzi eta mailari dagozkion gutxienekoak betetzen baditu, 11-22 puntu bitartean emango zaizkio.

– Eskatutako hitz-kopurura iristen ez diren idazlanak balioesterakoan, % 20 baino gutxiagogatik iristen ez den azterketariari kenketa egingo zaio puntuazio orokorrean, ondoren zehazten denaren arabera:

Hitz-kopurua	350
-1 puntu	326-349
-2 puntu	303-325
-3 puntu	280-302

Halaber, % 20 baino hitz gehiago falta zaizkion idazmen-proba honela kalifikatuko da:

Ez-gai: 5 puntu	≤ 280
-----------------	-------

Lehen ariketan, ekintza komunikatiboaren ebaluaziorako, irizpide hauek hartuko dira kontuan: 1) informazioaren kudeaketa; 2) testuaren birformulazioa; 3) erregistroaren aukeraketa eta 4) hizkuntzaren erabilera.

Bigarren ariketan, berriz, ekintza komunikatiboaren ebaluaziorako, irizpide hauek hartuko dira kontuan: 1) testuinguruarekiko eta testuarekiko egokitasuna; 2) koherentzia; 3) kohesioa; 4) aberastasuna eta 5) zuzentasuna.

Proba honek 30 puntu izango ditu gehienez (lehen ariketan: 8 puntu; bigarren ariketan: 22 puntu), eta, gainditzeko, 15 puntu lortu beharko dira, orotara (bi ariketen puntuazioak batuta).

Idazmen-proba osoa gainditzeko, ezinbestekoa izango da bigarren ariketako irizpide guztietan nahikoa ateratzea; beraz, bigarren ariketako irizpideren bat ez gainditzeak idazmen-proba osoaren kalifikazio orokorra honako hau izatea ekarriko du:

Ez-gai: 9 puntu

Probaren iraupen osoa (bi ariketak egiteko) 2 ordu eta 40 minutukoa izango da (erreferentzia gisa: lehen ariketa egiteko, 50 minutu; bigarrena gauzatzeko, 110 minutu).

Hitzak zenbatzeko, irizpideok erabiliko dira:

- Testuaren izenburua ez da kontuan hartuko.
- Eskutitz edo inprimaki erako testuetan (ohar, mezu elektronikoa, eskabide-orri...) hasierako agurretik hasi eta amaierako agurrean amaituko da kontatzen. Beraz, ez dira zenbatuko igorlearen zein hartzailearen datu hutsak (izen-abizenak, helbidea...). Datari dagokionez, lau hitz zenbatuko dira gehienez.
- Sortutako testuari erreparatuko zaio soilik. Beraz, proposaturiko egoera komunikatibotik hitzez hitz kopiatutako esaldiak ez dira kontuan hartuko.

Horrez gain:

- Hitz-elkarketak: Ebaluazio eta Egiaztatzerako Arloak horri buruz emandako irizpideei jarraikiz zenbatuko dira, Euskaltzaindiak hitz-elkarketak idazteko emandako arauen arabera.
- Araua bete gabe idatzitako hitzak zuzen idatzita baleude bezala zenbatuko dira.
- Zenbakiak hitz bakar bezala zenbatuko dira.

Antolaketa:

Azterketak bi eremu ezberdinetan egingo dira: trebetasun hartzaileak (irakurmena eta entzumenak) euskaltegietan eta autoikaskuntzarako zentro homologatuetan, eta trebetasun sortzaileak (idazmena eta mintzamina) lurraldeka eta lurralde bakoitzean barruti bateratuan.

Kalifikazioak eta emaitzak:

1.– C2 mailako proben kalifikazioak honela emango dira:

Trebetasuna	Gehienez	Gutxienez
Irakurmena	20	10
Idazmena	30	15
Entzumena	20	10
Mintzamina	30	15
Guztira	100	50

2.– Emaitzak:

Irakurmen-proba: Gai / Ez-gai.

Idazmen-proba: Gai / Ez-gai.

Entzumen-proba: Gai / Ez-gai.

Mintzamen-proba: Gai / Ez-gai.

Guztira: Gai / Ez-gai.